


DROGARIK EZ!



Ricardo Alcántara



GAZTARO BILDUMA



Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren diru-laguntza jaso dau.

DROGARIK EZ!



© Ibaizabal Argitaletxea, 1994
Editorial Luis Vives-en oneritziaz
ISBN: 84-7992-579-5
Legezko gordailua: BI -2341-94
Tailer grafikoak: ZURE, S.A.

Egilea: Ricardo Alcántara
Marrazkilaria: Gusti
Itzultzailea: Sabin Barruetabeña

2.11.024

*Ezbai barik, drogari EZ
esaten deutsien guztientzat.*



I

Gau haretan, Rosak ez eban ia begirik batu. Ez zan gitxiagorako! Biharamunean beherapenak hasiko ziran eta, pentsatze hutsagaz, urduri baino urduriago jarten zan.

Larri egoan une hori noiz helduko, ako gustatzen baijakon erostea, eta gainera erdi prezioan egin ahal baeban, ba... hainbat hobeto!

Saiatu zan nasaitzen eta horretan gehiago ez pentsatzen, baina bihotzaren taupadak azkar ebilzan pozaren pozez. Ohean bira erdi egin eban eta, Jazintoren sorbaldan burua jarrita, loak hartu eban.

Baina biharamun goizean, iratzargailuak jo baino lehen, egunsentiaren lehen argiak ozta-ozta ikusten ziranean, itzarrik egoan.

Salto baten jagi zan eta, kiloak itzi eutsien ginon azkar, lababorantz jo eban.

“Arranoa”ko atea edegiten zituenean lehenengoetarikoa izan gura eban sartzen, erostetxe handi

horretan gustatzen jakolako gehien erostea.

Horregaitik, bere seme Pablo eta senarra iratzartu, eta Tentori —etxeko txakurrari— gosaria jarri ondoren, kalera urten eban gaiztakeria bat egin dauan neskato bihurria baino pozago.

Segundo bat ere ez galtzeko, metroa hartu eban.

Artean ordu erdi baino gehiago falta zan zabalitzeko, Rosa, ibilkera bizkorrez, erostetxe handien aurrean amaitzen zan kale baten aurrera joianean.

Belarritik belarrirainoko irribarrea eroan eta, ondotik igaroten ziran guztien artean mirespena sortzen eban. Baina ate aurrera heltzean, magiaz legez, irribarre ha ezpanetatik desagertu egin jakon.

Sarrera nagusiaren aurrean jendetza ikaragarria egoan. Danak egonezinik, sartzeko unea noiz helduko.

Begiak urten beharrean, Rosak jendetza hari begiratu eutsan, eztarrian korapiloa egiten jakola narbituz.

“Demontre, ezin izango naz lehenengoetarikoen artean sartu”, autortu eban mingostasunez, baina ia berehala esan eutsan bere buruari: “iragazteko modua egiten ez badot”.

Jendetzaren ondora heltzean, unetik unera ugarituz joiana, Rosak ez eban ezbairik izan bere triki-mailuak erabilteko. Bere fisiko oparoaz baliatuz, jende artean bidea eginez joan zan, ukondokada bat eskumakoari emonez beharrezkoa bazan, boltsaz kolpe bat ezkerrekoari emonez behar izan ez-

kero, eta alboratzen ez zanari oina zapalduz ere bai.

Eta norbaitek, genio txarreko aurpegiaz, protesta egiten baeban:

— Zu, andrea, ez bultzatu!

Berak, birritan pentsatu barik, eta batera lotsa barik, atzera begiratu eta haserreturik, esaten eban:

— Horixe, ez bultzatu! Edukazio pixkat, hau jasanezina da eta!

Hau esan arren, bultzaka jarraitzen eban, lehenengoan artean jarteko prest.

Horretan ebilela, bapatean ateak edegi ebezan. Ha zaratea eta astrapalea!

Danak gura eben batera sartu, bai aurrean egozanak, bai atzean geratu ziranak. Eta batek ikusten baeban beste bat aurreratzen jakola, birritan pentsatu barik, samatik heldu eta baztertu egiten eban.

Aingira baten modura irristatuz, Rosa gero eta aurrerago egoan, harik eta zorionaren ataria zeharkatu eban arte. Orduan, denda barruan egoala, arriskuari ihesi dabilen sugandilea baizen arin, taila berezien sailerantz abiatu zan.

Bai berak, bai Jazintok, senarrak, eta bai Pablok, semeak, taila handiak erabilten ebezan, horregaitik denporea alferrik galtzea izango zan beste sail baten bila eta nahasten ibiltea.

Taila bereziak bostgarren solairuan egozan, aukerekin batera. Eskailera mekanikoak egozan arren, hango nahaste, bultzakada eta presakaz Rosa izerditan eta bihotza saltoka ebalu heldu zan.

Hala ere, bere aurrean hainbeste produktu eta hain desbardinak erdi prezioan ikustean, indarrak hartu eta guztiz erabagirik zuzendu zan leku horretara.

Kontua zan, ahalik eta jantzirik gehien hartzea, beste esku gogotsu batzuek harrapatu baino lehen.

Horregaitik, muturren aurretik aukera itzela kenduko ete eutsien bildurrez, presaka, erosten eban zer eroan ere jakin barik.

Zerbait estanpatua ikusten baeban, pentsatzen eban: "Hau neuretzat". Kolore bizietakoa, gazteen-tzakoa eta modernoa bazan, esaten eban bere kautan, ziurtasunez: "Hau Pablorentzat". Zerbait serioagoa, marra edo koadroduna topatzen baeban, esaten eban: "Ederto!" Jazintori eroango deusat. Bai horixe!

Gero, etxera heltzean eta nasaitasun handiagoz, ikusiko eban benetan zer erosi eban. Eta eroan ebanetik zerbaitek hiruretako inorentzat ere balio ez baeban, ba bururatuko jakon nori oparitu.

Eguerditik aurrera zan Rosak, neka-neka egin-da, amore emon eta alde egin ebanean. Erabat zamaturik joian fardelez eta Olentzero berbera emoten eban. Eta pauso bat ere gehiago emon ezin ebanez, taxia hartu eban etxera itzultzeko.

Sartu orduko, sofan jausi zan, arnasea sakon hartzen eban bitartean. Benetan ahiturik egoan...!

— Guau, guau, guau! —agurtu eban Tentok baketsu eta maitakor, baina andrea nekatuegi egoan txakurrari kasu egiteko.

Dana dala, uste eban ahaleginak merezi izan ebala, fardelez gainezka etorri zalako.

— Ah... zelako poza! —hasperen egin eban, begiradeaz inguratzen zituan bitartean.

Estu egoan gauza hareek ikusteko eta ez ekian zer egin kontrolatu eta Pablo eta Jazinto heldu baino lehen ez edegiteko. Baina, azkenik, gogo eta ahalegin handia jarrita, lortu eban tentaldian ez jaustea.

Orduan, hirurak egongelan jezarrita, fardel hareek banan banan zabaltzeari ekin eutsien.

Horrelan konturatu ziran Jazintorentzat biz-pahiru alkondara, pijama bat, eta zaldi gainean ibilteko prakak ere baegozala.

Jazinto honeei begira geratu zan pixka bat harriturik, itanduz lez inoiz erabiliko ete zituan.

Eta Rosak, pentsamendua irakurri baleutso lez, berehala erantzun eutsan zuhurtasun handiz:

— Beno, ezin da jakin. Egia esan, arropa horregaz eta zaldi gainean dotore baino dotoreago emongo zenduke.

— Guau, guau, guau! —txakurrak arrazoia emoten eutsala zirudian.

Jazintok tarte bat egin eban erantzun baino lehen, bere burua animalia baten gainean jarrita irudikatu izan baleu lez, baina azkenik oso alai esan eban:

— Arrazoia dozu! Batek badaki.

Rosak pozik egin eban irribarre, eta esku artean eukan kaixeari gaineko azala kentzen eutsan bitar-

tean ere irribarrez jarraitu eban. Kaixa haretatik buztandun txabusina atara eban, gorria, sator zuriekin, eta fleko eta bolantez betea.

Jazintok ha ikusi ordukoxe azaldu eutsan bere burutazioa:

— Ederto! Sebilanak dantzatzea erabakiten dozun egunerako ezin aproposagoa dozu. Soineko horregaz tablaoko panpoxena izango zara!

— Koipea! —esan eutsan emazteak, txabusin buztanez aurpegia estalduaz.

Une horretantxe, Pablok harriturik esan eban:

— Kontxo! Zer da hau?

Euritarako kapa bat zan, zuria, txanoduna, eta oso luzea, ia oinetaraino heltzen jakon.

Ikustean Pablo liluraturik geratu zan. Ez eutsien sekula horrelakorik erosi!

Iruditu jakon kapa ha zala inoiz asmatu zan gauzarik politena eta bere ama munduko onena zala erosi eutsalako.

Horregaitik, kapea itzi barik, Rosaren samara salto egin eta besoez inguratu eban, matraaila potoloak musu zaratatsuz beteten eutsazan bitartean.

II

Pablo estu eta larri egoan kapa zoragarri hori estrenatu ahal izateko unea noiz helduko. Baina oso egun eguzkitsuak egiten zituan eta ez zan ausartzen kaleratzeko ha jarten. Itxarotea beste erremediorik ez eukan.

“Seguruenik bihar zaparradaren bat egingo dau”, esaten eutsan gauero bere buruari, loak hartu baino lehen.

Baina biharamunean eguzkia oraindino ere indartsuagoa agertzen zan eta bere asmo eta ilusio guztiak hondatzen zituan.

Harik eta ia astebete geroago, zerua apur bat lainotuta agertu zan arte. Ez egoan euria egiteko benetako arriskurik; horregaitik ez jakon inori burutik pasatu etxetik urteteen euritakoa hartzerik.

Dana dala, eta bere burua animatzen ahaleginduz, Pablok esan eban bere artean: “Ezin da inoiz jakin. Hobeto da zuhur ibili etxera blai eginda

itzultzea baino”, eta kapea jantzi eban, zezen plazeari buelta emoten diharduan toreatzailea baino harroago.

Ikustean, Tento azkar joan zan ohe azpira ezkutatzerara. Halakoxea zan, ezagutzen ez eban edozerk bildurtzen eban ikaragarri. Baina Pablok nabaritu ere ez eban egin, eta pozez gainezka, ikastetxe-rantz abiatu zan.

Normala danez, ikastetxearen atarian alkartuta egozan umeak urrunetik ikusi eben.

Alkarri begiratu eta txantxetan, alkarri itaunka hasi ziran harriturik:

— Zer da honantz datorren gauza ikaragarri ha?

— Behia baino lodiagoa da, ez dot sekula hain behi lodirik ikusi. Zer ete da?

— Ovnia izango da.


— Ez dot uste. Baiaeren antza hartzen deusat nik.

— Egia! Balea zuria da!

Eta beste barik, txaloka hasi ziran, indar guztiez kantatzen eben bitartean.

*Zabala baiizen luzia
bale eskerga zuria.*

Hurreratu ahala, Pablok abestiaren berba batzuk baino ez zituan ulertzen. Eta, azkenik osorik ulertu ebanean, aitaren batean aldatu eban aurpe-gikerea, eta poztazuna ezabatu egin jakon bere gorputzetik.



Eta halakoxe amorru handia sentitu ebanez, nekez disimulatzen eban.

Oraindino gehiago, bere lepotik barrez ziharduenen artean Jaime, Bitor eta Fernando egozala nabaritu ebanean.

“Eta nik laguntzat neukazan”, pentsatu eban

mingostasunez, hareengan gehiago ez ebalatu konfiantzarik izango bere buruari berbea emoten eutsan bitartean. “Ez deusset barrero matematikako koadernoak itziko, ezta belauniko eskatzen badeuste ere!”

Bere onetik urtenda egoan eta, hainbeste izan ez balitzaz eta burrukan jakin baleu, desafio egingo eutsen, eta jipoi eder bana emon eskarmentatzeko.

Baina ia ziur egoan, hori egiten baeban, kolpeak hartuko zituana bera izango zala; beraz, eta berehala baztertu eban ideia, eta ez eban horretan gehiago pentsatu.

Hori bai, mesprezuz begiratu eutsan ahozabalen korru hari eta euren ondotik igaro zan kasurik egin barik, argi izteko oso haserre egoala.

Ez eban uste izan berak, besteak, kikildu beharrean, erreakzio ha barregarritzat hartu eta zirikatzen jarraituko ebenik.

Eta une haretatik aurrera, ez eben aukerarik galtzen horretarako, edo eskolatik kanpo, jolastokian, edo eskolatik urtetean. Eta handik egun batzuetara ez egoan ez ekianik txantxa zeren gainean zan.

Ezta ahoa itxita eukanik ere Pablo ondotik pasatzen jakonean. Bai zera! Nagusi edo txiki izan, Pablo gizajoa seinalatuz eta letra bakoitza ondo ahoskatuz esaten eben:

— Hor doa balea zuria!

Pablo konturatzen zan bere haserre gero eta handiago zala eta jadanik ez jakola gorputzean ka-

bitzen. Lehertzeko zorian egoan!

Baina txarrena zan, ez eukala lagun bat ere bere sentimenduak agertzeko ezta paseatzera urteteko ere. Bitor, Jaime eta Fernandok haren lepotik barre egiten jarraitzen eben, eta berak ez zituan begibistan ikusi gura.

Erabat gogaiturik ha jasan behar izateaz, sakrifizioz gogorrena egitea ere pentsatu eban: jateari iztea, jakina.

Erabagi hori hartzea ez jakon bat ere erraza egiten, ze, bai berak bai gurasoak, benetako gozame-na sentitzen eben jatean. Dana dala..., “argalago ikusten banabe, ez deustie balea esango” pentsatu eban, etsiturik, eta seguruenik ez jakon arrazoirik falta.

Kontuan hartu ez ebana da, ha ez zala erregimen bat hasteko unerik egokiena, izan ere, atseka-bea zala eta behar baino urduriago egoan, eta urduritasunak etenbaga jan eragiten eutsan. Zolako jan beharra sortu jakon orduan! Pirainekaz konpara eitekean!

Bere planak huts egin ebala ulertzean, etsitzen hasi zan; ez ekian zer gehiago egin eikean hainbesteko adar joteagaz amaitzeko. Benetan, kokoteraino egoan! Hala ere, emoten eban besteak ez zirala nekatzen “balea zuria” etenbaga deitzeaz.

Eta ez zirudian asko ikaratzen ziranik Pablok barbarik egiten ez eutselako eta gorrotoz beterik begiratzen eutselako.

Alderantziz, mutiko gizajo hari adarra jotera

gehiago animatzen zituala emoten eban.

Pablok, gero eta triste eta bakartiago, ez ekien zer egin eta non sartu ere. Bildurtzen hasia zan hura ez zala inoiz amaituko eta, pentsatzeaz bakarrik, indar barik geratzen zala sentitzen eban.

Baina ikastetxean txarto pasatzen baeban ere, asteburuak askoz okerragoak ziran, ez eukalako urteteko lagunik eta horrek haserre bizian jarten eban.

Amak, hain ernegaturik ikusita, behin baino gehiagotan itandu eutsan maitekiro:

— Zer gertatzen jatzu? Esaidazu!

Baina bera ez zan egia esaten ausartzen, barrua hustutzeko irrikaz egoan arren. Halako lotsea emoten eutsan haretaz berba egiteak, horregaitik isilik geratzen zan.

Gehienez buruari eragiten eutsan, gaiari garrantzia kenduaz lez, eta sukaldera joaten zan harapatzen eban lehenengo gauzea jateko.

Pablo egunean baino egunean serioago eta goibelago egoan, bere pentsamenduen artean galdurik. Une batzuetan maistreak berba egin eta ohartu ere ez zan egiten. Beste mundu baten bizi balitz lez.

Hainbestearaino zan, ez zan jabetu ere egin norbaitek, izkina baten ezkutaturik, ez eutsala begirik gainetik kentzen ikastetxera sartzen edo handik urtetan eban bakoitzean, ezta atsedendian bazter baten jezarrita egoan bitartean ere.

III

Urrundik, oraindino hurreratzen ausartu barik, interes handiz jarraitzen eutsazan bere mugimenduak norbaitek.

Mutiko bat zan, Pablo baino pare bat urte nagusiagoa, esnea baizen zurbila eta herren pixkat egiten eban ibiltean.

Ez zan han zehar ebilen lehenengo aldia, baina, aspaldi honetan, ez zan izkina haretatik mugitzen.

Begiak Pablorig ezarrita, nasai-nasai itxaroten eban presarik ez baleu lez. Martxan jarteko unerik aproposenaren zain egoan.

Abagunea Pablo ohi baino haserretuago egoan egun baten izan eban, arbelean balea itzel bat margotu ebelako beraren aurpegia eukana.

Ha gehiegizkoa zan! Pasatzea zan!

“Horreek... horreek... lotsabageak dira!”, pentsatu eban Pablok, urduritasunagatik, berbak ere nekez topatzen zituala. Haserre bizian egoan, be-

gietatik txinpartak dariola. Hala ere, bere ikaskideak belarritik belarrirainoko ahoa zabalduz jiji eta ja-ja jarraitzen eben.

Amorruaren amorruaz odola irakiten eukan eta minutu bat ere gehiago jasan ezinik, alde egin eban ikastetxetik atsedendian.

Ikzinkan zelatan egoan mutikoak, ha ikustean, ezin izan eutsan pozezko irribarreari eutsi. Orduan, urrezko aukera ha aprobetxatzeko asmoaz, atzetik jarraitu eutsan.

Eta Pablo, hain haserreturik egoanez, ez zan konturatzen norbaitek ia bere gerizeak baizen hurretik jarraitzen eutsala.

Serio eta goibel ebilen, zoruari indarrez ostikoka, honek zerbaiten errua baleu lez.

“Ez dot berriro eurekaz jolastuko, ezta aurpegi-
ra begiratuko ere! Memeloak dira!”, esan eban bere baitan, eta orduantxe entzun zan atzean:

— Harroputzak eta lotsabageak dira! Ez ditut begibistan ikusi gura!

Pablok berehala bira egin eban, eta orduan itxura tristeko mutiko bategaz egin eban topo, zirudienez, bere kasa berbetan ziharduana.

Mutikoak, Pablok harriduraz begiraten eutsala ikustean, bere buruagaz ozenki berba egiten harra-patu ebalako apur bat lotsaturik egoelako itxurea egin eban.

Baina laster erreakzionatu eban eta, segundorik galdu barik, oraindino gehiago hurreratu jakon Pablorigi, eta ha zelanbait zuritzeko, esan eban:

— Ez pentsatu kalean zehar jibiltzen nazenik neure buruagaz berbetan, zoroak lez. Gertatzen dana da... —berbak aurkitzea zaila egiten jakolako plantak egiten zituan.

— Pixka bat urduri zagozala —laguntza txiki bat emon eutsan Pablok.

— Bai! Horixe da gertatzen jatana! —esan eutsan eta, eten baten ondoren, itandu eutsan—: Eta zuk..., nola nabaritu dozu?

— Ez dakit... —esan eban Pablok sorbaldak jasoaz, nahiago ebalako ez azaltzea berari gauza bera gertatzen jakola, eta ibiltzen jarraitu eben. Jakina, orain bata bestearen ondoan.

Mutikoak, orduan, bere burua aurkezteko aprobetxatu eban:

— Ni Jose Luis naz —esan eutsan eta, Pablok ezer itandu ez eutsan arren, hainbeste mintzen eban zer zan azaltzen hasi jakonean, urduri baino urduriago geratu zan bestea. Adiskideen errua da, badakizu? Etenbarik jabiltaz adarra jotzen “oilo herrera” esaten deuste ze... —zalantzatan geratu zan, haretaz berba egiteak benetan mintzen eban—, hankakoagaitik.

— Badakit —baieztatu eban Pablok, besteak azaldu gura eutsana ondo baino hobeto ulertu eban eta. Eta sudurra zimurtuz, arrautza ustela hurreratu baleutsie lez, gehitu eban—: Ez deust ardura esaten dabenak, belarri batetik sartu eta bestetik urten.

— Eta niri ere bai! —esan eban Jose Luisek oso komentziturik—. Ez ditut ezertarako behar. Beste

lagun batzuk daukadaz, eta hareekin bai pasatzen dodala primeran.

— Bai?! —oihu egin eban liluraturik, berari ez jakon gauza bera gertatzen eta.

Besteak, isildu eta begirada desbideratu eban, gaia amaitutzat emonik lez. Baina Pablok, guztiz interesaturik egoanez, jakin gura izan eban:

— Eta..., zelakoak dira lagun horreek? Zer egin dozue?

— Alkarte bat dogu eta ia egunero batzen gara lokal baten. Asteburu batzuetan txango joaten gara —esan eutsan Jose Luisek, jakinik eztia ahoan jarten joakola.

— Zeuok bakarrik joaten zarie txango? —harritu zan Pablo, iruditu jakolako artean gazteegiak zizala euren kasa txango joaten itzi eieen.

— Ez, bai zera!, osaba Kasimirok eroaten gaitu.

— Ah... —arnasea hartu enan Pablok, eta dala-ko “osaba Kasimiro” nor zan ideiarik ere ez eban arren, itandu ere ez eutsan egin.

Bere pentsamenduak beste nonbait erabilzan hegan. Zoriontsu eta irribarretsu irudikatzen eban bere burua, mutiko hareekin txango urteten, euren adiskide bihurturik.

Mutil hareen artean ikusten eban bere burua, alkarregaz ibiltzen, danak alkarregaz jolasten, mahai berean jaten... Azken xehetasun honetaz zerbait gehiago jakin nahi izan eban:

— Nork prestatzen dau janaria?

— Ba, osaba Kasimirok eta haren laguntzaileak.



— Eta jateko onak eginen ditu?

— Mmmm..., gozo-gozoak! —erantzun eutsan Jose Luisek, begiak zurian jarritz.

Eta Pablok, amuari heldu ezezik osorik irentsi ere egin eban eta, erregu tonuaz eskatzera ausartu zan:

— Zergaitik ez deustazuz zeure lagunak aurkezten?

— Beno... —erantzun eban Jose Luisek gogo barik, ez eukala horretarako interes handirik aditzera emonez.

Horrek Pabloren jakinmina oraindino gehiago biztu eban, eta ezbairik izan barik ekin eutsan:

— Ez zaitetz horrelakoa izan, aurkeztu eidazuz.

— Bale..., Bale... —esatera mugatu zan bestea, baina ezer zehazkiro agindu barik. Proposatutana hauxe izan zan—: Zapatuan zinera noa, etorri gura dozu?

— Jakina! —onartu eban gogo onez.

Zapatuan, erabagita eukien lez, bildurrezko filme bat ikustera joan ziran. Eta, itxaro eben besteko bildurrik ez eutsen emon, baina ederto pasatu eben, halere.

Zinetik urtendakoan, artean goiz zala aprobeztatuz, paseatzen ibili ziran apur baten. Harik eta azkenik, Jose Luisek esan eban arte:

— Badozu zerbait jateko gogorik?

— Bai! —erantzun eban Pablok, ia esaldia amaitzeko astirik emon barik, eta kafetegi baten sartu ziran.

Jose Luisen ezusterako, oso jale mizkina zalako, Pablok zerbitzariari eskatu eutsan:

— Katilu bat txokolate, dozena erdi txurro eta... entsaimada bi!

Pozaren pozez, irribarrea ez jakon ezabatzen ezpanetatik. Jose Luisek berehala nabaritu eban eta

horrek bere planagaz jarraitzera animatu eban.

Apur bat geroago, Pablok bere meriendea irensuten eban bitartean, harira ez etorrela, besteak apur bat atsekabeturik esan eban:

— Gustatuko litzakit taldeko gauzak kontatzea, baina... —orduan eten bat egin eban eta gero, ziurtasun handiz, baieztatu eban—: Benetan dinotsut, gugaz etorriko bazina primeran pasatuko zeunke!

— Ba, zeren zain zagoz eroateko! —ekin eutsan Pablok, lagun barriak ezagutzeko irrikitan.

— Ez dakit... —esan eban besteak, ezbaian begirada desbideratuz.

— Zer ez dakizu? —bota eutsan, adi-adi begira, kontua ahalik eta arinen argitu nahian.

— Ia ez zaitut ezagutu ere egiten, eta oraindino ez dakit fidagarria zanean.

— Izango ez naz ba!

— Badakizu sekretuak gordeten?

— Horretan ez egin zalantzarik! —oihu egin eban Pablok, oso serio. Ez ekian zer gehiago egin bere lagunak sinesteko eta beragan konfidantza izan eian behin betiko.

Baina lortu eban, antza, ba beste mutikoak hau esan ebanazkenean:

— Ondo, horrelan bada...

Esaten eutsan, taldeko bati ikastetxeko ikasgai-
ren bat ulertzea kostatzen bajakon, besteak eskola-
ko lanak egiten laguntzen eutsiela. Eta norbait gai-
sorik baegoan, besteak orduak eta orduak emoten
zituela honen ohe ondoan, aspertu ez eiten. Ur-
tebetetze bakoitza otoruntza handiakaz ospatzen
ebela eta...

— Zein ondo! —harriduraz esan eban Pablok,
Jose Luisi esaldia amaitzen itzi barik.

— Hala ere, gauzarik onena da... —esaten hasi
zan Jose Luis, baina bapatean mututu egin zan.

— Zer? —esan eban Pablok, berbetan jarraitu
eian animatzen ahaleginduz.

— Ba..., oraindino askoz gehiago, baina ezin
deutsut horretaz gehigorik esan. Jakingo dozu unea
heltzen danean —izan zan erantzun maltzur eta
tentagarria.

“Kontxó!”, pena hartu eban Pablok. Filmeko
suspentse gune gorenean, bapatean telebista hon-
datzea lez zan. Jakinminaren jakinminaz, birritan
ekin eutsan. Baina alferrik: besteak ez eban txintik
atara.

Jose Luisek bere ikasgaia oso ondo ikasia eukan
eta zehazki ekian noiz isildu behar eban. Esan eba-
na izan zan:

— Berbea emoten badeustazu hankarik ez sar-
tzea, lagunak aurkeztuko deutsudaz.

— Noiz?

— Ba... datorren asteburuan —proposatu eu-
tsan Jose Luisek eta, aurpegiera adiskidetsu eta

bihurriz, itandu eutsan—: Zin sakratua egiteko
prest zagoz? Kontuan izan gero ezin izango deutsa-
zula inori azaldu han barruan ikusten dozuna.

Joku inozo bat balitz lez, birritan pentsatu barik,
Pablok erantzun eban alai:

— Jakina. Eta luzatu dakidala sudurra zina bete-
ten ez badot! —gehitu eban erdi txantxetan erdi se-
rio.

Jose Luisek irribarre egin eban, lagunagan kon-
fidantza osoa ebala erakutsiz. Gero erlojuari begira-
tu eutsan eta, uste baino beranduago zala ohar-
turik, berehala abiatu ziran Pabloren etxera. Han
alkar agurtu eben eta Jose Luis ozenki txistua joz
joan zan.

Astean zehar pare bat bider ikusi eben alkar eta,
bietan, Jose Luisek bere interesa disimulatu ezinik,
honela itandu eutsan:

— Ez zenduan atzera egingo, ezta?

— Ez horixe —erantzuten eban besteak, oso se-
rio.

Orduan Jose Luisek, ahots doinua eta aurpegie-
ra ere aldatuz, berehala esaten eban:

— Badakit, kokolo, txantxetan niharduan.

Azkenik, zapatuan, arratsalde erdian, erabakita-
ko lekuan alkartu ziran eta, lagun onak lez berbe-
tan, Kalabria kaleko pisura abiatu ziran, Jose Luis
eta lagun taldea batzen ziran lekura.

Heltzean, Pablo harritu egin zan, taldea berak
uste baino handiagoa zalako. Mutil guztiak ziran
bera baino zaharragoak, eta batzuk bizarra eta bi-

botea ere baeben. Baina haren harridurea handiagoa izan zan osaba Kasimiro eta laguntzaileak ezagutu zituanean. Honeek ia bere aita baizen zaharrrak ziran, eta ez eban ulertzen zer egiten eben mutikoeekin jolasten.

Baina gizonak ahalegin handia egin eben begikoak izaten eta Pablok berehala urrundu zituan bere burutik sentimendu arraro guztiak. Oraindino gehiago, handik apur batera bata eta besteagaz egoan berbetan betidanik ezagutuko balitu lez, osaba Kasimirok bere ohorerako prestatu zituan pastel gozo haiei haginka egiten eutsien bitartean.

Eta ondoen pasatzen egoan unean, ba norbaitek oso txiste dibertigarriak kontatzen ziharduan, alde egin beharra ebela esan eutsan Jose Luisek.

— Zergaitik? Oraindino goiz da! —protesta egin eban Pablok, apur bat gehiago gelditzeko gogoia eukalako.

— Orain zin egin dabenek baino entzun ezin di-tuen gauzez berba egingo dabe —azaldu eutsan besteak.

— Bai... —esan eban eta, gogo txarrez, kazado-rearen bila joan zan alde egiteko.

— Ez kezkatu, beste egun baten itzuliko gara —kontsolatu eban Jose Luisek.

Eta, berbea betez, egun gitxitara barriro eroan eban bisitan. Eta asteburuan barriro eroan eban, eta...

Mutiko hareen artean Pablok primeran igarozten ebala egia zan arren, gehien maite ebana osa-

ba Kasimiro zan. Hau beti egoan mutikoari begira: honen txiste eta urteerekin barre egiten eban, eskolan ateraten zituan notez arduratzen zan, eta janzteko eban gustu ona goraiatzan eban...

Eta Pablo, bizitza osoan hain ondo tratatua sentitu ez zanez, osaba Kasimiro erdi jainkotzat eukiten hasi zan. Gizon harek esaten ebana sakratua zen berarentzat.

Horregaitik, osaba Kasimirok, tarte batean, esan eutsanean:

— Denporea da gugaz zagozala. Zin egitea pentsatzeko sasoia da. Zer moduz zapatuan egiten badozu?

— Jakina —onartu eban pozik, irrikitan egoalako talde haretako partaide izateko.

Hurrengo zapatuan, Jose Luis etxera joan jakon bila eta, barritsu eta gogotsu, Kalabria kaleko pisurantz abiatu ziran.

Pablo belarritik belarrirainoko irribarreaz agertu zan, baina, sartzeaz batera, ezpanetatik ihes egin eutsan.

Ez zan gutxiagorako, zeren egun haretan osaba Kasimiro oso serio egoan. Eukan aurpegiereak aditzera emoten eban une haretan ez egoala txantxetan ibilerik. Gertakizuna zelakoa zan baekiala argi izteko, pesimistarik handienak ere berarentzat nahiko leukean aurpegiera serioaz, Pablo salearen erdian jarri zan.

Handik gitxira osaba Kasimiro hurreratu jakon eta, begiradea kendu barik, esan eutsan:

— Kontuan hartu, zin egin ondoren, gutariko bat izango zareala eta ezingo dozula atzera egin —isildu zan une batez, gero gehitzeko—: Hala ere, prest zagoz?

Eta, Pablok buruaz baiezkoa egin ebanez, pres-takuntzak hasi ziran.

Batek mahaia ekarri eban, beste batek zamauaz estaldu, eta kandela batzuk iziotu zituen.

Dana prest egoanean, osaba Kasimirok kuku-rutxo handi baten antzeko kapelea jarri eban, kolore baltzekoa eta ilargi erdia eukana pintaturik.

Hain barregarri egoan haregaz, ikustean, Pablori ia urten eutsan barre-algara batek. Zorionez, eta ez ahaleginik egin barik, barreari eustea lortu eban.

Artean, beste zertan edo ahrtan pentsatzen aha-legintzen zan, horrelan barreari eusteko, osaba Kasimirok agindu eutsanean:

— Jaso éskumako eskua!

Berehala egin eban, bizitzea jokoan baleu lez.

Ezkerreko eskua pergamu baten gainean jarri beharra izan eban; han margozturik egozan burazurra eta planeta bitxi moduko bat.

Jakinaren gainean jarririk ez erratzeko arreta handia behar ebala, Pablo errepikatuz joan zan taldeko buruak doinu solemnean ahoskatzen zituan berbak:

- Hemen barruan esaten eta egiten dan guztia sekretuan gordeko dot, eta zigorrik bildurgarrienak ere ez deust berba eragingio behar baino gehiago.



- Hemendik aurrera nire kideak senide izango dira, eta eurei zor deutset fideltasuna eta obediencia.
- Odolez zigilatutako lotura hau nire bizitzako gauzarik garrantzitsuena izango da.
- Zalantza barik beteko ditut nagusiak emoten

deustiezan aginduak.

- Gogotsu eta jo ta ke lan egingo dot, eta ahaleginik handienak egingo ditut agintzen deustiezan eginbeharrak ondoen beteteko.
- Horrelan, apurka-apurka, aurrerantz egingo dot izaki pribilegiatu bihurtu arte. Eta, nire nagusiak egokia erizten deusienean, Kleenbody planetarako bidaian hareekaz batera joateko ohorea izango dot.

Orduan isiltasun itzela egin zan, denporea bera ere, zaratarik ez egiteko gelditu izan balitz lez.

Pablok batzuei eta besteei zeharka begiratzen eutsen, guzti ha abentura zoragarritzat harturik, eta bapatean konturatu zan benetan sentitzen ebana beldur apur bat zala.

Bapatean burutapen hau etorri jakon: behar bada hobeto izango ebala zin egin ez baleu. Orain zer egin zina hausteko? Ezin eban atzera jo. Pentsatzean, sabela nahasten jakon.

Eta gainera, isiltasun sakon harek belarriak zulatzen eutsazan.

Azkenik, Jose Luisek, taldean aurkeztu ebana izateagaitik, egundoko keinuak eginez eta hunkiturik hurreratu jakon besarkatzera, aldi berean zorionak emenez:

— Zein harro nagoan! Hau egun ahaztezina da!
— esaten eutsan ia oihuka, besoekin estutzen eban bitartean.

Gero besteak, banan banan, besarkatu eben aldi berean berba atseginak esanez, eta Pablori berba

honeek arimaraino heldu jakozan.

Besarkaden ostean, eta bere ezusterako, otartekoak freskagarriak eta pastela atara zituen, Pabloren sarrerea ondo ospatzeko.

“Ha bai ondoetorri atsegina!”, pentsatu eban Pablok bere begi disdiratsuekaz, mastekatzeari itzi barik.

Oso jai alaia zan eta, berandu arte egon ziran gertakizuna ospatzen. Handik alde egitean, Pablok jadanik ez eban ez errezelurik ez bildurrik. Eta gehiago, zoriontasunez lehertzean egoan, hain talde pribilegiatuko partaide izateagaitik.

V

Rosa laster ohartu zan bere semea lehengoa zala barriro, eta horrek nasaitu egin eban. Ezintasuna sentitu eban aste haretan, Pablok, goizetik gauera erabat ipurterre, edozergaitik protesta egin eta dana txarto hartzen ebalako.

Zorionez, egun ilun horeek iraganeko gauzea ziran, Pablo barriro ere mutiko saloa eta irribarre errezekoa zan.

Andreak ere ondo ekian zein zan aldaketa horeen zergaitia. “Mutiko horreekaz batzen danetik, nire semea barriro bizi da”, esaten eban bere artean, konbentziturik.

Eta ez egoan oker.

Zin egitearen sustoa pasatu ondoren eta, lagun barriak hobeto ezagutu ahala, Pablo erosoago sentitzen zan giro haretan.

Egia zan batzuetan gauza arraro samarrak egiten ebezala, berak zentzurik hartzen ez eutseak.

Egia zan, behin baino gehiagotan harrapatu ebazala ia sekretuan berba egiten eta bera hurreratzean berehala isiltzen zirala.

Baina horrek zer eutsan ba. Bera gogaitzen ez eben bitartean, beste guztia ez jakon askorik ardurara. Garrantzitsuena zan lagunak ebazala, eurekaz alkartu, berba egin eta barre egiteko noiznahi.

Ia arratsaldero, eskolatik itzultzean, amari itauntzen eutsan:

— Joan naiteke lagunak apur batean?

Itaun honi Rosak, jende hari eskerrona eutsanez, zalantza gabe erantzuten eutsan:

— Beno, baina ez geratu beranduegi arte; gero eskolako lanak egin behar dituzu.

— Ondo dago, ama —esaten eban Pablok, eta ziztuan urtetan eban.

Harik eta egun horreetako baten, Kalabria kaleko pisura heltzean, guztiak ohi baino euforikoago aurkitu zituan arte.

— Zer gertatzen jatzue? —itandu eban.

— Datorren asteburuko zubia aprobetxatuz lau egunetako txango joateko planak egin ditugula! —izan zan erantzuna.

Pablo eurei begira geratu zan, begiak zabal-zabalik eta belarritik belarrirainoko irribarraz, zalantza barik hain poztasun handiaz kutsaturik. Eta, gonbidatu eien astirik emon barik, oso osoan bota eutsen:

— Ni ere zuekazo eroateko asmoa izango dozue. ba? Ez neuke etxean geratu nahi.

— Zelan bururatzen jatzu? —erantzun eutsien besteak, irribarrea galdu barik

Ez eban susmatzen Pablok bera ez bajoian txangoa ez zala seguruenik egingo, guzti ha berarentzat prestaturiko lakioa zalako.

— Eta..., nora joango gara? —jakin gura izan eban umeak, bidaiaren ideiaz pozturik.

— Osaba Kasimiroren etxera, mendira —esan eutsan Jose Luisek eta, ia berehala gehitu eban—: Leku zoragarria da, ikusiko dozu nola gustatzen jatzun!

Pablok eskuak igurtzi zituan, aldi berean begiak zabal-zabal egiten zitularik, aditzera emonez hain bidaia zoragarria egiteko irrikitan zegoala. Bere burua lagunakaz sutearen ondoan alkaturik ikusten eban, okelea su gainean erreten zan bitartean.

Hain argi ikusten ez ebana Rosa zan. Berari ez eutsan batere graziaz egiten Pablo hainbeste egunetarako joateak ezagutzen ez eban jendeagaz.

Mesfidantza apur batez, senarrari itandutea erabagi eban:

— Jazinto, zuri zer iruditzen jatzu?

— Zer ba...? —erantzun eban ezbaian, gehiegi konprometitu barik.

— Zerbait esan behar deusagu umeari ilusio handiegiak egin baino lehen. —eskatu eutsan Rosak—. Badakizu zelan jarten dan kontra egiten jakonean, horretan zeure antza dau.

Jazintok betaurrekoen gainetik begiratu eutsan, erantzun barik. Nekatuegi egoan eztabaidan sartze-

ko, eta gainera galtzen urtengo eban. Hauxe esan eban:

— Oso konbentziturik ez bazagoz, onena etxean geratzea izango dau.

— Ados! —esan eban berehala Rosak, haxe zalako, hain zuzen ere, entzutea itxaroten ebana. Eta, arazoagaz ahalik eta arinen amaitzeko, erabagi ebena Pablori esatera joan zan.

Pablo, ezer ez ahazteko motxilea prestatzen ebilen eta sutan jarri zan entzutean, sutan jarri zen. Ezergaitik ere ez zan txangoa barik geratuko.

— Beste baten joango zara —nasaitzen saiatu zan ama.

Baina harek entzun ere ez eutsan egin, eta ume-txo gosekilak baino arrantza handiagoak egiten hasi zan.

Hainbesteko negar eta oihuak, ez eutsien Rosari eritzia aldatu eragin. Hau ikusita, taktikea berehala aldatzea erabagi eban. Orduan, aurpegia alkondara besoaz lehortu ondoren, amarengana hurreratu eta, besarkatu ondoren, esan eutsan lausengari:

— Nor da munduko amarik onena eta ederrena?

Itaun honi Rosak, eguzkitan dagoan izozkia lez urtzen zalarik, erantzun eutsan:

— Ez dakit, uste dot neu nazala...

Pablok jarraitu eban, horrela bereagaz urtengo ebalako ziurtasunez:

— Eta zein da bere semetxo maiteari gutizia guztiak emoten deutzazan ama?

— Hor ez dot zalantzarik, neu naz!

— Eta..., nork itziko deust txango joaten?

Rosak, gogortasuna berreskuratuz, artean doinu gozoz, erantzun eban:

— Inork ere ez, aitak eta nik hobeto dozula ez joatea uste dogulako.

Pablok pausu batzuk atzera egin zituan; orduan aurre egin eutsan haserre aurpegiaz. Baina Rosak ikararik egin ez ebanez, bira erdi emon eta komunean zarratu zan, deskontsolaturik negarrez:

— Txango joan gura dot! Joan gura dot! Buuuuaa!

Luzarotxoan egon zan bainugelan zarratuta, denbora galtzea zala konturatu zan arte; orduan urten egin eban betoskoa jarrita telebistaren aurreko sofan jezarri zan.

Afalorduan, argi geratu eiten haserreturik egoala, ohi baino zarata handiagoak egin zituan zopea jatekoan. Gero oilaskoa egoan, eta izter biak hartu zituan besteei erreakzionatzeko astirik ere emon barik. Eta, Rosak postrea ekarri ebanean, berehala hartu eban pastelaren zatirik handiena.

Gurasoak benetan haserre egozan umearen jarrereaz, zeren zatirik handiena zozketatzea eukien arautzat eta ez lehenengo heltzen zanak hartzea. Hala ere, ez ikusia egin nahiago izan eben.

“Pasatuko jako, pazientzia!”, pentsatu eban Rosak, platerean geratzen ziran pastel izpiak batzen zituan bitartean.

Baina haserre ez jakon hain erraz joan. Hain handia izan zan, eta biharamunean, ikastetxetik urten eta etxetik pasatu barik, Kalabria kaleko pisura

jo eban arineketan.

— Zer egiten dozu hemen hain goiz? —harritu ziran bere lagunak.

— Non dago osaba Kasimiro? —itandu eban Pablok—. Beragaz hitz egin beharra daukat.

— Azkenengo gelan —esan eban osabearen laguntzaileetariko batek.

— Beno... —esan eban marmarka Pablok, nahiko haserre.

Osabea gela hartan zarratzen zenean, ez zan molestatu behar, ondo ekian berak.

Ez ekiana zan, gela haretan ze demontre egiten eban, izan ere, gela haretara abakar batzuk baino ezin eitekezan sartu. Baina une haretan oso gitxi ardua eutsan han barruan zarratuta zer egiten eban. Nahitaezkoa eban beragaz berba egitea.

Gizona berehala ohartu zan heldu barria urdu-riegi egoalá, horregaitik nagusiari abisatzera joatea erabagi eban. Apur bat geroago osaba Kasimiro agertu zan eta, Pablori sorbaldatik helduta bazter batera eroan eban. Adi-adi begiratu, adiskidetasunez itandu eutsan:

— Zer gertatzen jatzu?

Pablok dana jarraian kontatu eutsan, eta gero erabagi handiz esan eutsan:

— Izten ez badeustie ere, zuekin joango naz.

Gizonak ezin izan eban disimulatu poztasun keinua, Pablok taldea familiaren aurretik jarten ebala ikustean. Hala ere, apur baten pentsatuz, agindua balitz lez, esan eutsan:

— Ez da komeni desobeditzea. Oraindino ez. Eureka berba egitera joango naz eta konbentzitzen ahaleginduko naz. Uste dot onena izango dala.

Eta biharamunean, erabagita eukien lez, osaba Kasimiro mutikoaren etxean agertu zan.

Pablo artean eskolan zan, eta Jazinto, barriz, lanetik etorri barik, beraz Rosa bakarrik egoan. Eta, bere semeak bisitarik izango ebanik esan ez eutsanez, atea jo ebenean harritu egin zan.

Zabaltzean, oraindik gehiago harritu zan zaldun dotore haregaz topo egitean, ondo baino hobeto trajeaturik, solapan lore bat eta guzti.

“Eta txima honeekaz...!”, pentsatu eban Rosak, oso txunditurik. Hain aztoraturik egoanez, ez eban asmatu zer gura itauntzen ere.

Ha ikusita, osaba Kasimirok, zinemako galaien estilorik onenean irribarre ginez, ahots alaiz xuxurlatu eutsan:


— Zu al zara Rosa?

— Bai... —esan eban emakumeak, ahots izpi batez.

— Pozten naz. Kasimiro Bisiedo naz, osaba Kasimiro, mutikoak esaten deusten lez —aurkeztu eban bere burua, eta errespetuz mun emon eutsan eskuan.

Ha zan Rosari falta jakona impresioaz hilten sentitzeko. Ez eban egundo hain pertsona fin eta ondo hezirik ikusi. Beno, pelikuletan baino ez..., baina ez da gauza bera!

Une batez isilik egon ziran eta, etxeakoandreak



eskaintzen ez eutsanez, berak itandu eban:

— Pasatu naiteke? Zugaz berba egin gura neuke. Lanpetuegi ez bazagoz, jakina...

— Ai nire buru hau! Zelako portaerea! —bere buruagaz haserretu zan, hain aztoraturik egoanez ez ekian zelan portatu ere—. Pasatu zaitetz, mesedez!

Egongelaraino lagundu eban eta, ha jezarten zan bitartean, andrea azkar joan zan sukaldera kafea egitera.

Gizonak zigarroa atara eban eta, iziotu ostean, mahai gainean egoan hautsontzia hartzeko jagi zan, baina sinestezina badirudi ere, ezin izan eban, Tentok ez eutsalako itzi. Txakur onkote harek horrelakorik egiten eban lehenengo aldia zan.

Lapur arrunt bat balitz lez, Tento haginak erakutsi eta marmarka hasi jakon, pasatzea galazoz.

Osaba Kasimirok bildurturik atzera egin eban, jezarri zan, eta ez zan mugitzen ausartu. Orduan etzun zan Tento alfonbran, begirik gainetik kentzen ez eutsala, mesfidantza nabariaz.

Handik gitxira Rosa egongelara itzuli zan, kafeontzi lurruntsua eta erretilukada gaileta barru-bete ekarriz. Izan ere, hareetxek zituan bere gustokoenak!

Andreak katiluak beteten zituan bitartean, osaba Kasimirok harira joateko aprobeixatu eban. Begietara zuzen-zuzen begiratu, hipnotizatu gura baleu lez, doinu atseginez esan eutsan:

— Pablorki gugaz joaten itzi deiozun eskatzera natortzu. Berak gogo handia dau, eta zuk ezin deutzazu ukatu.

Eta Rosak, ezetz esaten jakin barik, onartu egin eban. Hori bai, mila gomendio egin zituan, etxearen helbidea eta telefonoa eskatu zituan...

Honelan, Pablo bereagaz urten eta txango joan zan.

VI

Barikuan abiatu ziran, arratsaldeko azken orduan, alokatutako autobus baten. Gidaria Bernardo zan, osaba Kasimiroren laguntzaileetariko bat.

Pablo lehiatilaren ondoan jazarri zan, merienda poltsea belaun gainean ebalala.

Martxan jarri eta berehala, otartekoetariko bati papera kendu eta haginka ekin eutsan, bitartean paisaiari begiratu.

Artean jaten ziharduala, osaba Kasimiro jarlekuz jarleku zerbait banatzen ebilela konturatu zanean.

“Zer ete da?”, itandu eban bere artean umeak.

Pilula gorri bat zan, txikia eta borobila, eta...

— Jarri eizu mihi azpian eta itzi urtzen —azaldu eutsan gizonak.

Pablok horrelan egin eban denporarik galdu bari, baina apur bat dezepzionaturik geratu zan, harek ez eukalako ezeren gustorik.

Hala ere, gerotxoago dibertigarria iruditu jakon

inolako gozotasunik ez eukan pilulea hartzera gonbidatua izana. Hainbesteko barregura emon eutsan, eta laster jiji eta jaja hasi zan.

Algara batean ziharduan isildu ezinik, barrezko atake batek emon baleutso lez.

Eta bera ez zen bakarra. Autobusean joiazan batzuk ere barre algaraka ziharduen, eta batek daki zeri.

Ez zelan ez noiz ez ekiala, Pablo loak hartu eban. Orduan hain amets arraroak izan zituan, eta lotan, ahapeka kexatzen zan eta bildurtuta balego balego mugitzen zan jarlekuan.

Horrela jarraitu eban harik eta osaba Kasimirok, oihuka, heldu zirala esan eutsen arte. Ia lotan jagi zan Pablo, ahoa lehor eta buruan durunda bitxi bat ebalababarituz.

Bere ohea zein zan esan eutsien eta, erantzeko indar barik, koltxa gainean jausi zan. Burua burkoaren gainean jarri ordukoxe, barriro seko lo geratu zan.

Ez zan itzartu biharamuna arte, eta goizaldea nahikoa aurreratua egoan. Azkar abiatu zan sukaldera: ordu gehiegi ziran mokaurik probatu ez ebalababarituz eta sabelean zerbait sartzeko preminea eukan.

Sukaldean ia adiskide guztiak algara batean topatu zituan. Pozez gainezka egozan egun haretan Kleenbody planetara bidaiatuko ebelako.

— Eta... nik? —itandu eban Pablok.

— Zu ere etorriko zara —nasaitu eban osaba Kasimirok.

— Zelan joango gara? —itandu eban mutikoak, ba beste planeta batera joateko espaziuntzia behar zala uste eban, eta han ez eban horrelakorik ikusten.

— Jakingo dozu unea heltzen danean. Ez da ona hain jakimin handia izatea —haserre egin eutsan Bernardok.

— Danok joango gara? —jarraitu eban itaunke-tegaz.

— Ia guztiok —ebatzi eban Kasimirok, mutiko bati zehiharka begiraturuz.

— Eta noiz abiatuko gara?

— Gaur arratsaldean, bazkal ostean —esan eban osaba Kasimirok, bira erdi egin eta sukalderrantz alde egiten eban bitartean.

— Urra! —ohikatu eban Pablok, guzti ha lilurgarri eta dibertigarri aurkitzen ebalarik.

Jakinmina kontrolatu ezinean, adiskideei Kleenbody planeteari buruzko xehetasunak eskatu eta eskatu jarraitu eban.

Besteak kontuz erantzuten eutsien, eta mutikoak bidaia egiteko eban gogoa handiagotzen ahaleginduz, osaba Kasimirok esana eutsen lez.

Horrelan jarraitu eben luzaroan, norbaitek bazkaria prest egoala jakinazo eban arte. Orduan Pablok, besteak berbea ahoan ebela itzita, tximisteak lez urten eban jangelarantz.

Lehenengoa izan zan mahaijan jezartzen, lehenengoa zerbitzen eta jaten hasten, eta lehenengoa amaitzen.

Horregaitik, berak ez beste guztiak guztiak jaten ziharduela ikusita, bat ere lotsa barik, barriro bete eban platera goraino. Aitaren baten iruntsi eban eta, artean erretilueta janaria geratzen zala ikusita, Pabloren aurpegiera umore onaren irudi bizia zan, eta burruntzalia eskuratu eban hirugarrenez platera beteteko.

Jose Luisek ikara begiez begiratzen eutsan. Zelan eitekean mutil harek hainbeste jatea?

— Kalte egingo deutsu! —esan eutsan.

— Gehiegi da, kalte egingo deutsu! —esan eben beste batzuk ere, baita osaba Kasimirok ere.

— Bai zera! —defenditu zan, honelan argudiatuz—: Kalte egiten dauana mahaitik sabela bete barik jaigitea da —eta mastekatzen jarraiu eban.

Bere ideiei zintzo, ez eban amaitutzat emon bazkaria sabeleko hutsune guztiak bete arte. Orduan, hain áseturik mugitzea ere kostatzen jakola, poztasunez aitortu eban:

— Jaun batek lez jan dot!

Jose Luisek haserre, ia erantzun eutsan, baina garaiz konturatu zen ha ez zala eztabaidan hasteko une egokia eta isiltzea erabagi eban.

Guztiak egon ziran isilik, alkarrri esateko beste ezer ez balebe lez, harik eta osaba Kasimiro jangelara itzuli arte dana prest egoala jakinazoteko.

— Igo zaitekeze ganbarara —esan eutsen, eta besteak berehala egin eutsien kasu.

Pablok gero eta gitxiago ulertzen eban guzti ha. Zelan joan eitekean Kleenbody planetara ganbaratik?

“Uste dot zoratuta gagozala danok”, esan eban bere artean, osaba Kasimirorengana itauntzeko erabagiaz hurreratzen zan bitartean. Baina gizonak, haren asmoari igerririk, berbarik esateko astirik emon barik, bota eutsan:

— Orain isilik egon behar dogu, argi dago?

Pablok baietz egin eta bere adiskideen atzetik joan zan, honeek iladan joiazan eskilaran gora.

Ganbaran egozalala, kuxinen gainean jazarri ziran, bizkarra hormearen kontra jarrita eta osaba Kasimirori adi begiratu.

Honek bere poltsikoetariko batetik, urre koloreko domina bat atara eban, eta patxada handiz, idu-nean jarri eban. Orduan, artean giroan zegoen isiltasun tinkoa urratu gabe, banan-banan begiratu eutsen, gero itanduteko:

— Zuetariko nork uste dozue merezi dozuela Kleenbody planetara bidaiatzeko pribilegioa?

Guztiak jaso eben eskua, baita Pablok ere, honek zeiharka begiratzen eutsien adiskideei hareek egiten ebena imitatzeke.

— Baina... —jarraitu eban osaba Kasimirok— ziur nago guztiok ez dituzuela eginbeharrak bete —eta Jordiri aurre emon eutsan, hau mutiko lotsati eta argala zan, berba bi jarraian totelka egin barik esateko gauza ez zana.

— Ni... ni... ni... bai... bai... —bere burua defenditzen saiatu zan mutikoa, ezelan ere ezin ebalako etsi bidaiia egin barik geratzea. Kleenbody planetara joatea zan benetan ardura jakon gauza

bakarra. Bere menpekotasuna hain handia zanez, kapaz zan edozertarako.

— Ez deutsu inork berba egiteko eskatu —bota eutsan aurpegira nagusiak

Jordik erregu aurpegieraz begiratzen eutsan, arren eskatuz bidaian joaten itzi eiola. Bizitzen jarraitzeko ia airea beste behar eban.

Baina, jarrera harek, antza, ez eban osaba Kasimiro bigundu, eta serio eta gogor, mesprezuz esan eutsan:

— Ez zara gugaz etorriko, eta hau eskarmentua izan daizun itxaro dot.

Jordik aurpegia eskuez estaldu eban eta, amorruru aldi baten, jagiteko egoanean, osaba Kasimirok nagusitasunez agindu eutsan:

— Geratu zaitez zagozan lekuan, zorigaitzeko hori!

Mutikoa ezbaian egon zan une batez, baina obeditu egin eban azkenean.

Bere harridurea ezin disimulaturik, Pablok begiak osaba Kasimirori ezarri eutsazan. Egundó ez eban ikusi horrela portatzen, eta kontua zan benebenetan mintzen ebala. Gero Jordiri begiratzuz pentsatu eban: “Mutiko gizajoa”. Pena emoten eutsan hain bidaia zoragarrian berekaz joaterik ez ebalako. “Ziur ahaztezina izango dala”, behin eta barrero esaten eutsan bere buruari, abiatzeko unea noiz helduko irrikaz.

Osaba Kasimirok keinua egin eban eskuaz eta mutiko batzuk gortina lodiak ixteko jagi ziran.

Orduan gelea erdi ilunpean geratu zan, etenbaga biraka egoan argi gorriska batek ozta-ozta argitzen ebala, hormetan zidarrezko mila distira sortuz.

“Bai bitxia!”, pentsatu eban Pablok, ez ebalako ulertzen. “Zelan demontre moldatuko ete gara hegatzeko?”

Ozta-ozta eukan ahoa itxita, baina ez zan ausartzen ezer itauntzen beragaz haserretu eitezan bildurrez eta azken momentuan lurrean iztea erabagi ez eien.

Orduan, osaba Kasimirok txalo batzuk jo zituan eta, berehala, laguntzaile bi joan jakozan, une horretara arte kanpoan itxaron ebenak.

Tunika luze zuriak zituen urrezko karelekin eta oinutsik egozan. Oso serio sartu ziran, gela haretan norbaiten beilan balegoz lez. Lehenengoak edalontzia eta pitxarra ekarzan. Besteak, urreak lez distiratzen eban kaxa bat, ez oso handia ere.

Gizonak osaba Kasimiroren aurrean geratu ziran eta hau, begiak erdi itxita, otoitz egiten balego bezala marmarrean hasi zan. Amaitzean, laguntzaileei, ahots pausatuaz esan eutsen:

— Jezarri daitezala nire ondoan ohorezko gonbidatuak.

Gizonak Pablori agintariaren eskumaldean jertzeko esan eutsien. Ezkerraldean Jose Luis jarriazo eban; pribilegio hori egokion, berak ekarri ebalako taldeko kide barria.

Gauza guztiak euren lekuan eta bakoitza egokion lekuan egoala ikusita, osaba Kasimirok bere

laguntzaileei agindu eutsen:

— Hasi zaitekeze.

Pablo mugitu egin zan jarlekuan; bidaia laster egingo ebelako pozaren pozez, ezin geldi ere egon.

VII

Erritual bat balitz lez, solemne eta errege erako, osaba Kasimiroren adiskideak erlojuaren orratzen norantzean hasi ziran mugitzen. Lehenengo bira pare bat egin eben erritmo berean ibiliz, ondo ikasia ebela adierazoz, eta azkenik Jose Luisen aurrean gelditu ziran.

Gizonetarik batek edalontzia urez beteten eban bitartean, besteak kutxea edegi eta mutikoari eskeini eutsan. Honek barruan egoan piluletarik bat hartu eta ahora eroan eban, besteak emon eutsan ura edanez. Edalontzia itzuli eban, ezpanak lehortu eskuaz eta, begiak itxita, ahots gora berba egin eban:

— Kleenbody planetara abiatzen naz, han ba-kea, zoriona eta ondoizatea dira nagusi. Han, adiskideekin batera, zorionaz gozatuko dot.

Hau esanda, bapatean mutu geratu eta, hormearen kontra jausi zan, burua aurrerantz eta alboerantz jausten jakola. Bazirudian burua astunegi



jakola eta berak ez ebalatente eusteko lain indar.

Orduan gizonak Jose Luisen ezkerrean egoan mutikoaren ondoan jazarri ziran, kutxea hurreratu eutsien eta... gauza bera!

Une horretantxe ulertu eban Pablok zelan mol-datzen ziran suziri eta espazi-untzi edo kohete ba-

rik bidaiatzeko.

“Jakina, pilula horrei esker da!”, erabagi eban bere artean. Orduan besoei, sabelari eta hankei begiratu eutsen eta zurbildu egin zan.

Bapatean lotsa itzela nabaritu eban, benetako bildurra izan eban. Mutiko hareek ere iseka egingo eutsien, bere lodiereagaitik Kleenbody planetaraino igotea ez ebalalortu jakiten ebenean.

Zelan igoko eban, pilula hareek atzamar txikiko atzaskala baino txikiagoak izanda, eta berak balea batek beste pisu izanik?

“Besteak bai, jakina, zotzak baino argalago dagozalako”, pentsatu eban, puxiken erreztasunaz airean, planeta urrunera zoriontsu eta irribarretsu joaten irudikatzen zituan bitartean.

Hala ere, bere burua mosaikoari josita ikusten eban, zolutik arra bat jagitea ere lortu barik.

“Zelako amorrua!”, protesta egin eban bere baitan, etsiturik konponbidea zein izan eitekean pentsatzen eban bitartean.

“Eta bi edo hiru pilula hartzen baditut...”, bururatu jakon, eta ideia ezin hobea iruditu jakon.

Gizonak ikusi eta haserretu itezan arriskua egoanez, plan hori ahaztea erabagi eban.

Baina..., zer besterik egin eikean?

Ba, pilulea irunsi eta gero planetan izan zala asmatu eikean, gela haretatik mugitu ez arren. Kontua zan kontakizunari irudimen handia emon eta era sinesgarrian adieraztea.

“Jakina, laguntzaileak bidaiari urtetan ez badira,

ezin izan nazela hemendik mugitu ikusiko dabe eta besteei esango deutesiee. Ha buruhaustea!, esaten eban bere kautan, urduri baino urduriago, gizonak arriskuz hur egozalako.

Honeek Jordiren ondoan gelditu ziran. Mutikoak aurpegia beso artean ezkutaturik eukan eta burua jaso eban nabaritzean.

Une batez, besteak eritiziz aldatu eta bidaiaria egin izen itziko eutsiela pentsatu eban. Aurpegi emonez, ahoa zabaldu eban, txorikume, ezindu eta goseti baten moduan.

Baina hareek, ikararik egin barik, ezetz egin eban buruaz eta, jaramonik egin barik, jarraitu eban.

Orain mutiko bi baino ez ziran falta Pabloren txandea heltzeko. Eta berak zer egin ez ekiala jarraitzen eban. Hain urduri egoan, bazirudian kaktus baten gainean egoala. Ezin zan ezelan ere geldirik egon.

Txarto baino txartoago egoan, urteera bagako kale baten itxita.

“Amarengana joan gura dot!”, oihuka hasteko gogoia izan eban, bi hareek aurrean jarri jakozanean.

Ahoa ia mekanikoki edegi eban, gizonetariko batek kutxea zabalik eskeintzen eutsan bitartean pilula hartu eian.

Pablok ezin eban ulertu zer demontre pasatzen zan bere barruan, hanketatik gora korrente hotzak igoten jakozan, burutik ostara, bero sargoriaren

uhinak jaisten jakozan. Batzuek eta besteak, justu sabelaren erdian egiten eban topo, kataklismo itze-laa sortuz, aurrikusi ezinezko ondorioak ekarri eitezana.

Pablok ez eban uste hainbesteko torturea luza-roan jasan ahal izango ebanik. Eta ez ebilen oker...

Bizkarra apur bat tente jarri eta besoa luzatu eban pilulea hartzeko. Ahoan sartzerako joian unean, sabeleko sastada batek minez makurtuaz eban.

— Aaahhh! —kexatu zan mutikoa.

— Isilik! Ez egin oihurik! —esan eutsan osaba Kasimirok, haserre itxuran—. Zer gertatzen jatzu?

— Tripako mina... —azaldu eutsan Pablok, esku biez sabelari helduta.

— Ez nau harritzen! —azaldu eutsan besteak, pazientzia galtzeko puntuan, gauzea ez joialako berak gura bestean ondo—. Barrero ere gertatuko jatzu, txarriak lez jaten jarraitzen badozu. Etxean ez deutesue edukaziorik erakutsi ala?

Pablok matrailak amorruez gorri jarten jakozala nabaritu eban. Irain ha larriegia zan eta ezin eban jasan; halere, orduan isilik egotea hobeto zala erabagi eban.

Une horretantxe, haize burrundara handi batek jota lez, osaba Kasimiroren irudia jausi egin zan Pablok eregia eutsan altaratik.

Eukan mina ezin disimulaturik, ia xuxurlatuz, umeak esan eban:

— Komunera joan beharra daukat...

— Joan zaitekez —baimendu eutsan osaba

Kasimirok, halako elementutik libratzeko gogoaz.

Pablo zutundu eta ahoa eskuaz estaldurik, botagureaz egoan eta, azkar abiatu zan bainugelara.

Aurpegia busti, ur apur bat edan eta nasaitu ondoren, arriskua pasea zanez, askoz hobeto sentitu zan.

— Uf... —arnasea hartu eban nasaiturik, eta musuzapia aterateko eskua poltsikoan sartzean, pilulea han eukala konturatu zan.

Ha itzultzea beste erremediorik ez eukan... Barriro ganbarara joateak bat ere graziarik egiten ez baeutsan ere, harantz abiatu zan gogo barik.

Astiro-astiro eta zaratarik egin barik igon eban eskilarea, eta isil-isilik atera hurreratu zan. Sartzen itzi eioen atea jotera zihoala kristal ilunetatik osaba Kasimiro ikusi eban lepoz, bere lekuan mugitu barik.

Baina gehien harritu ebana beste mutikoak ere hantxe ikustea izan zen, ganbaratik mugitu ez zirelako seinalea. Hormearen kontra edo lurrean etzunda, erdi lotan ziruden.

Berehala, pelikuletan protagonisteak berari apuntatzen jogokozala somatzen dauanean lez, bere burua lurrera bota eban. Seigarren zentzu batego arriskuren batetik hur egoala esaten eutsan.

Ate ondoan makurturik egon zan, hain geldo arnasea hartzen ere ez zala ausartzen.

“Guzti hau oso arraroa da”, esaten eban bere kautan, gero eta mesfidantza handiagoa eukala nabaritzuz.

Handik apur batera entzun zuen eban osaba

Kasimirok Jordiri bere ondora hurreratzeko esaten eutsan eta, isilune labur baten ostean, agirika egiten hasi jakon:

— Begira zer gertatzen dan eskatzen deutsudana beteten ez badozu. Ez dozu esana egiten eta gero hainbeste gustatzen jatzun bidaia egin barik geratzen zara.

— Ba... ba... baina... ezin... ezin izan dot... Benetan...!

— Ez dot sinesten, oso erraza zan eta. Beste batzuetan egin dozu. Amaren bitxiontzitik gauzatxoren bat hartzea besterik ez zan. Hain dago beterik...!

— Ba... baina... banku... bankura ero... eroan dabe.

— Badakizu bidaiari bakoitzak bere bidaia ordaindu behar daua. Zer ekarriko deustazu orduan? Beharbada... dirua.

— Saia... saiatuko... naz —agindu eban Jordik, besteak sinestu eion ahaleginduz.

— Horrelan bada, eta zuga konfidantza dodala ikusi daizun, bidaia egiten itziko deutsut. Baina betetzen ez badozu, damutuko zara, badakizu ez nabilela txantxetan!

— Bai... bai... ba... badakit.

— Emaiozue pilula bat —agindu eban osaba Kasimirok, eta ez zan beste barbarik entzun.

Pablok nahaste itzela eban buruan. Birak eta birak emon arren, nekez ulertzen eban zein azpilan erabilen han barruan.

Bidaiarena dana guzurra zala argi eukan. Eta guzti ha inozoak harrapatzeko trikimailua zala ere bai. Baina..., mutikoak ez ziran konturatzen lau horma hareen barrutik ez zirala mugitu?

“Seguruenik ez...”, amaitu eban, aurkikuntza parebagea egin dauanaren aurpegiaz.

Oso pozik egoan bakoitzean egiten eban lez eskuak igurtzitzera joianean, pilula artean han eukala nabaritu eban. Alkondarearen poltsikoan gorde eban eta, ikusi ez eien lauhankan ibiliz, ahal eban adinean azkar alde egin eban.

Bere gelara abiatu zan, han ohe gainean etzunda, besteak “bidaiatik itzuli” eitezan itxaron eban.

Kontua da loak hartu ebala eta, itzartu zanean, iluntzen hasita egoan. Gaua han igaro beharko ebala pentsatze hutsaz, hain bildur handia nabaritu eban gorputzean, gogoz arineketan hasi eta etxe haretatik urrun egon arte ez zala geldituko.

Baina..., nora joan? Eta mendian galtzen bazan? Gertatu eitekean paraje hareetan ez aurkitzea lagundu eikion inor.

Zalantza barik... istilu ederrean sartuta egoan! Urtenbiderik aurkitu ezinik, presa handi barik jagi zan eta, astiro-astiro sukalderrantz abiatu zan.

Etxean hain isiltasun handia egoanez, une batez Pablok bapatean gor geratu izango zala pentsatu eban. Horretan ez pentsatzen ahalegintzen zan, baina alferrik, erabat ikaraturik egoan. Iruditzen jakon ilunetatik, mila begi zelatan eukazala, une egoakia heltzean erasoteko zain.

Sukaldean ere ez egoan inor, guztiak jarraitzen ebela goiko pisuan batuta emoten eban.

Bapatean, hurreratzen doazen pausu batzuen zarateak, oraindino zurbilago jarri eban, eta errusimendian ibiltzen zan bakoitzean izaten eban antzeko sentsazioa nabaritu eban sabelean.

Inguraturik dagoan animalia bat baizen babesbaga, ez ekian zer egin, ezkutatzeko txoko bat bilatu, ala ezer gertatuko ez balitz lez nasai itxurak egin. Azken hau aukeratu eban, ez ebalako aurkitu ezkutatzeko leku egokirik.

Pausuak gero eta hurrago egozan, eta hareek hurreratu ahala, Pabloren hagin-karraskea handiagotzen joian.

Bapatean, sukaldeko atea zabaldu zan apurka-apurka, hotzikarak emoteko moduan kirrinkatuz.

Bildurraren bildurrez, Pablo indar guztiez oihuka hasteko puntuan egoanean, Jose Luis agertu jakon.

— Ah... —zeu zara! —esan eban umeak, eta piska bat nasaia go arnasea hartu eban, ba, lagunaren ondoan, salbu sentitu zan.

Isil-isilik hurrerau eta, mutikoari besotik heldu ostean, ahapeka berba eginez, konfidentziazko doinuaz, egin eban aurkikuntza kontatu eutsan:

— Bidaiarena ez da egia. Atetik zelatan egon naz eta handik ez zariela mugitu ikusi dot.

Jose Luisek pauso bi eman zituan atzerantz, harridura begiez begiraturik, bira erdi emon eta arineketan alde egin eban azkenik.

VIII

Pablo txorimaloa baino tenteago geratu zan, Jose Luisen erreakzioak harrituta.

“Beharbada baekian, eta osaba Kasimiroren-gana joan da azkar kontatzera badakidala...”, izan zan umearen bildurra eta erabagi eban seguruena inortaz ere ez fidatzea ebala, alderantzizkoaz seguru egon arte.

Hain bakarrik egoan eta mehatxatzen eban arriskuari aurre egiteko hain baliabide gitxi eban, ezen barregarri egoan ala ez arduratu barik, oihu baten esan eban:

— Ama!

Rosak berehala biratu eban burua, Pabloren deiadarra garbi entzun ebala iruditu jakon eta.

Alde batera eta bestera begiratu eban, baina... ezer ere ez! Jakina, zertan ete egoan bere semea han ordu hareetan.

Jazinto eta bera, ostera, mahai oparo baten aurrean jazarrita eta primerako jakiez inguraturik, beste eztegualdi bat ospatzen egozan.

Egia esan: oso emonak ziran ospakizunetara. Ez eben askoren beharrik izaten zerbait ospatzeko arrazoi ona aurkitu eta bapatean jaitxo bat egiteko. Orduan, Pabloren hutsunea nabari ebela eta pena aurpegiaz etxean geratu beharrean, jatetxe dotore eta garesti batera afaltzera joatea erabagi eben.

Jazintoren ideia izan zan, eta Rosak pozarren onartu eutsan. Baina bigarren platera dastatzen ziharduenean, Rosari Pablok deitzen eutsala iruditu jakon. Ezin izan eutsan gain hartu artegatasunari. Ez eukan han egoteko gogorik, nahiago eban etxera joan.

— Oraintxe bertan? —itandu eutsan Jazintok, harriturik.

— Ez, plátorean dagoana amaitzen dodanean —argitu eban emazteak.

— Ahalegindu zaitetz nasaitzen —aholkatu eutsan senarrak—. Orandino postreak falta dira.

Rosak une haretan bere ondotik pasatu zan postre orgatxoari begiratu, esan eban:

— Beno, ahal dodana egingo dot kontrolatzeko. Hori bai, kafea etxean hartuko dogu.

Eta horixe egin eben. Postreak amaitzean, danak dastatu ondoren, etxera joan ziran.

Horregaitik ez zan nasaiago sentitu. Urduritasun bitxi ha gero eta handiagoa zan eta Rosak ez ekian zer egin nasaitzeko. Harik eta, bultzada antzeko ba-

ten, bere ahots beteaz esan eban arte:

— Pablori deitu gura deutsat ondo dagoan jakiteko.

Jazintok, apur bat nasaiago, erlojuari begiratu eta gehiago haserretu ez eiten maitekiro berba eginenez, esan eutsan.

— Oso berandu da, laztana. Ez al da hobeto bihar goizera arte itxarotea??

— Beno... —onartu beharra izan eban Rosak, eta ohera joan ziran.

Gau haretan ez eban begirik batu, ahal dan modu guztietan ahalegindu zan arren. Etenbaga ebilen pentsatzen zelan ete egoan Pablo.

— Ezer txarrik gertatu balitxako, deituko euskuen —xuxurlatzen eutsan Jazintok, erdi lotan.

— Bai, badakit barri txarrak hegan egiten dabela —esan eban emazteak, eta senarrak arrazoia eukala baekian ere, kontua zan gitxi balio eutsala: ezin eban Pablo burutik kendu.

Bitartean, Pablok, hau ere lokartu ezinik, bere buruari itauntzen eutsan zer asmatzen ete ebilzan osaba Kasimiro eta besteak. Luzaroan egozan sukaldean batuta, ahapeka zihardu inork ez entzuteko. Pablori gelara joateko agindu eutsien, eta esana egin eban gauzak oraindino txarrago ez jarri teko.

Han egoala, lau horma hareetan itxita, larritasunez itxaroten eban, bere buruari itanduz zer egin ahal eban salbatzeko. Zalantzasu beterik, leihora hurreratu, zaratarik egin barik edegi eta burua atara eban.

Dana zan iluntasuna, ez zan argi txiki bat ere ikusten inguru guzti haretan, eta iluntasun haretan salto egin eta ihes egitearen ideiak dutxa hotz batek lez arnasa moztu eutsan.

Ez..., ez zan ausartzen.

Ohera hurreratu eta hormearen kontra jazarri zan. Itxarote ha, ia tortura jasanezina zan.

Tarteka, ahotsak ez ziran entzuten, bilerea amaitu balitz lez. Orduan Pablok bila joango jakozala pentsatzen eban. Gauaren erdian mehatxuz hurreratzen jakozan ahotsak entzuten zituan.

Estuasun haretan, gehiago kiribiltzen zan ohean, jadanik ez jakola bat ere adorerik geratzen nabaritzuz.

Baina berehala konturatzen zan alarma faltsua zala, pausuak ez ziralako gehiago entzuten, eta orduan nasai arnasea hartzen eban. Jakina, nasaitasun horrek oso gitxi irauten eutsan, ba, handik gitxira, barriro hasten zan.

Harik eta hainbeste ikaraldi, larridura eta bildur izan ondoren, gaua amaitu eta egun barriaren lehen distirak azaldu ziran arte. Pablo azkar joan zan leiho ondora argitasunari begiratzeko, honek arrisku guztiak uxatu ahal izango balitu lez.

Luzaroan egon zan han, apurka-apurka argiagi eta lagunkoiagi bihurtzen zan paisaia haretan begiak josita, eta horretan telefonoak jo eban.

— Telefonoa...! —esan eban Pablok bere kolporako, gelako aterantz abiatuz. Orduantxe konturatu zan etxean ere baebela telefonoa.

“Etxera deitu ahal baneu...”, pentsatu eban, itxaropen izpi batez.

Hala ere, telefonoraino heltzea ez zan hain erraza izango. Ezbaian egoan, ez eukalako lortuko eban ziurtasunik.

Bitartean, telefonoak joka jarraitzen eban. Zirudienez, ez egoan hur hartu eikean inor. Seguruenik hain nekaturik egozan, ezen telefonoaren txirrinak ere ez zituan iratzartu.

Haxe izan eitekean bere aukera bikaina. Beraz, ausarki, gelatik urten eban.

Txirrin hotsari jarraituz, pausoak dardaraka emoten zituan. Pasiloa ilunpean zeharkatu eban, jantokirako bizpahiru maila jaitsi zituan, sukaldeko atea gurutzatu eta, despentsan, kontserba potoen artean, azkenik, hantxe aurkitu eban telefonoa.

“A zer leku modua!” esan eban bere artean, hartzeko eskua luzatzen ebalarik, halako batean bere atzean entzun eban:

— Ezta pentsatu ere hartzerik!

— Ni... ni... —esan eban totalka, erantzun sinegarria asmatzeko denbora hartzen saiatuz. Baina egia esan ez jakon bururatu ezer ere.

Besteak, aurpegi ilunaz begiratzen eutsan bitartean, telefonorantz azkar joan eta erantzun eban:

— Bai..., esan.

— Kaixo, egunon!, Pabloren ama naz, berba egin neike beragaz? —esan eban Rosak, telefono hariaren bestaldean.

Mutikoa zalantzan egon zan une batez, ez ekia-

lako zer erantzun, eta azkenik esan eban:

— Ba..., une honetan ez dagoz... ostera bat egitera urten dabe.

— Hain goiz? —harritu egin zan emakumea, ondo ekialako bere semea izara artetik ateratea ez zala erraza izaten. Eta, artean ezustetik urten barik, jakin gura izan eban:

— Ondo dabil?

— Bail, bai! —baieztatu eban berehala bestea.

Baina hala ere, Rosa ez zan nasaitu, beraz itaun-ka jarraitu eban.

— Zer ordutan itzuliko dira?

— Ba... nik... mmm —trabatu zan gaztea, ideiak lotzea nekeza egiten jakolako.

— Beno, itauna ez da hain zaila, zu! —esan eban emakumeak txantxetan eta, eten baten ondoren, jarraitu eban—: Zer ordutan esan daben itzuliko dirala itaundu deusut.

— Ha... hamabietan, oker ez banago —esan eban azkenean, alkarrizketa ha ahalik eta arinen amaitzeko gogoaz.

— Eta..., zeu zer dala eta ez zara joan? Zigorturik zagoz ala? —itaundu eutsan Rosak maltzurkeriaz.

— Ez, etxezain geratzea egokitu jat eta —bururatu jakon esatea mutikoari.

— Ulertzen dot. Beno, esaiozu Pablori heldu orduko niri deitzeko. Eskerrik asko eta agur —eta beste barik eskegi eban.

Orduan, ezpan ertzean hatzamar bat jarrita se-

narrarengana biratuz, bere susmoak autortu eban.

— Ez dakit..., zer gura dozu esatea?, ez jat gustatu mutiko horren berba egiteko modua. Oso... susmagarria da.

— Andrea! Zuk alde guztietan ikusten dituzu mamuak —bota eutsan Jazintok, bere susmo txarrakaz jarraitu ez eian.

— Beharbada arrazoia dozu —onartu eban andreak eta, logura aurpegia kendu gabe, sukaldera abiatu zan gosaria prestatzeko asmoaz.

Baina, hamabietarako artean asko falta zan arren, jezarrita egoan telefonotik hur semearen deiaren zain.

Harik eta Pablogaz berba egin eta ondo pasatzen ari zala entzun arte, neska gazte maiteminduari baino hasperen sakonagoak eragiten eutsazan artegatasun ha ez jakon joango.

IX

Han, etxean, Pablo eta osaba Kasimiro ere telefonoaren ondoan egozan, hots egiteko prest.

Gizonak, umeagaz zein haserre egoan ezkutatu barik, haserre doinuaz errepikatu eutsazan aholkuak:

— Behar baino gehiago berba egiten badozu, oso garesti urtengo deutsu. Pentsatu eizu zin egin dozula eta horrek gugaz lotzen zaituala betiko. Hemen esan edo egiten danik ez azaltzea zin egin zenduan. Ulertzen dozu? —itandu eutsan bekokia zimurturik, eta lepotik helduta.

— Bai... —erantzun eban Pablok, hain bildurturik, hankak estutu arren txizak urteten eutsala konturatuz.

Eta gizonak, benetako arerioari lez begiraturaz jarraitu eban:

— Amari ondo pasatzen diharduzula esango deutsazu, hau zoragarria dala, ados?

— Zoragarria... —esan eban barriro umeak, ondo baino hobeto ulertu ebalá erakusteko.

— Burlarik egin barik! —esan eutsan besteak, umore txarrean eta edozerk molestutzen ebalarik. Eta maltzurkeriaz berba eginez, jarraitu eban—: Ea, deitu amatxori behingoz. Zeren zain zagoz?, ume-txo...

Pablok ez ekian zer eskatzen eutsan egiteko besteak, aurikularra hartu behar eban ala geldi egon gizon harek ezer gertatu ez balitz lez adarra jotzen jarraitzen eutsan bitartean. Horregaitik ez eban ezer egin, baina...

— Deitzeko behingoz! Ez deustazu entzuten ala? —oihu egin eban osaba Kasimirok, eta iduneko zanak handitu egin jakozan, une batetik bestera lehertzera joango balira lez.

Ahalik eta azkarren, Pablo telefonoa hartu eta zenbakiak markatzen hasi zan.

Horretan ziharduála, osaba Kasimirok, sagua jatera doan katuaren begiradaz, esan eutsan:

— Ibili azkar, gero Kleenbody planetarantz joango zara bidaian —eta barre algaraka hasi zan. Goiz osoan lehenengo aldiz barre egiten baeban ere, Pablok nahiago eban serio jarraitu eian.

“Deabruaren barrea lakoxea da”, pentsatu eban, eta ule guztiak tente jarri jakozan.

Eta gainera, indarrak barritzeko arnasea hartzeko minutu bat ere emon gabe, Rosak telefonoa hartu eban eta kezkatu ahotsez esan eban:

— Bai, nor da?



— Ama, neu naz —erantzun eban, adoretzu itxurak eginez.

— Zelan dago nire txikitxoa? —jakin gura izan eban amak.

— Ondo, oso ondo —erantzun eban Pablok, osaba Kasimiroren poztasunerako.

— Pozik zabilz hor?

— Ondo, oso ondo. Zoragarri! —erantzun eban Pablok, amak esaten eutsanari baino gizon haren keinu eta aginduei kasu gehiago eginez.

— Eta..., esaidazu gauza bat, nitaz gomutetan zara pixkatxo bat bada ere? Badozu etxera itzultzeko gogorik?

Ha entzutean, Pablok zerua edegita ikusi eban. Inor konturatu gabe gurasoak jakinaren gainean jarteko aukerea zan. Orduan, gogotsu erantzun eban:

— Bai, bai! Oraintxe bertan eta pozik gainera!

— Gezurtia...! —esan eban ozenki Rosak, irribarretsu eta pozik, ha lausengutzat hartuz.

“Ez deust ulertu”, pentsatu eban umeak, eta barriro ere desmoralizatu egin zan.

— Jateko nahikoa emoten deustue? Janaria ona da? —jarraitu eban jakin guraz andreak.

— Bai...

— Atzo gauean, zer jan zenduen postrerako?

— Ba... ez dot gogoratzen... —esan eban Pablok ezbaian, eta ez ebilen guzurretan. Osaba Kasimirok, gogaituta egoanez, ahapeka eta keinuak eginez, eskegitzeko agindua emon eutsan.

— Beno..., agur... —esan eban Pablok.

— Agur, txikitxo! —esan eutsan era berean Rosak.

Baina, senarra egoan lekurantz azkar biratuz, harridura aurpegiaz esan eutsan:

— Afarian postrerako zer eman eutsien ez dala

gogoratzen esan dau.

Eta Jazintori adi-adi begira jarraitzen eban. Gizonak begiradeari eutsi eutsan ezelako iruzkinik egin barik.

Osaba Kasimirok ostera, pozez beterik berea-gaz urten ebalako eta egiteko asmoa ebanagaitik, esan eban:

— Ondo portatu zara eta, saritzeko, bidaia egiten itziko deustut. Ja, ja!

— Eskerrik asko, ez dot gogorik —errefusatu eban Pablok.

Eta gizonak, ezpanetan irribarrea ebala, guzti ha dibertigarria bailitzan eta barregurea emongo baleutso lez, erantzun eutsan:

— Ez deust ardura zer pentsatzen dozun. Neuk dinodana egingo dozu! Ikusiko dozu bidaia pare bat egin ondoren, erreguka eskatuko deustazu joaten izteko. Ez dau hutsik egiten —esan eban osaba Kasimirok oso seguru. Ondotxo ekian, lehenengo dosien ondoren, droga horren menpekotasuna hain handia zanez, mutikoak gai zirela lapurretan egiteko pastila horreek lortzearren.

Ezer erantzun barik, Pablo bira erdi emon eta arineketan hasi zan, kanpoko atera berehala helduz. Kanpoan egoanean, eta atzera begiratu gabe, arineketan egin eban pausokada bakoitzean gogo guztia jarritz.

Osaba Kasimirok, saguagaz olgetan dauan ka-tuak lez, leihotik ikusi eban aldentzen. Orduan, poztasun handiz, bere laguntzaileetariko bati esan

eutsan:

— Bernardo, utziozu abantaila pixka bat hartzen, gero bila joan eta arrastaka ekarriko dozu.

Esan eta egin. Handik pixka batera, gizon harek Pablo oinak eta eskuak lotuta ekarren, animalia ehizatua balitz lez.

Sokeagaitik, mutikoa behartuta egoan saltoka ibiltzen. Baina, zaluegia ez zanez, behin eta berrero estropezu egin eta lurrera jausten zan. Hala ere, ez eban etsitzen. Indar egiten eban, sokatik libratzeko, eta hurreritzen jakonari haginkada bat emoteko mehatxu egiten eutsan.

Beste mutikoak, hango istiluaren istiluaz iratzartuta, banan-banan agertuz joiazan egongelan zer gertatzen zan jakiteko. Pablo halan ikusita, txantxak eta iseka egiten hasi jakozan.


Danak, Jordi izan ezik, hau oso ondo gomutetan zalako berari ere antzeko zigorra jasan eragin eutsiela. Ha eroan ezinik, haserraldi baten Pabloren ondoan jezarri eta bere alde jarri zan:

— Ba... ba... bale..., ezta? Ta... ta... ta...

Osaba Kasimirok, jakinik nondik eraso minik gehien egiteko, iseka egin eutsan:

— Kontuz honegaz, tiroka dihardu eta. Ez dozue ikusten metrailadorearen antza dauala? Ta, ta, ta, ta, ta! —eta arma eskuetan baleuka eta tiroka balihardu lako keinuak egin zituan.

Batzuek eta besteak burutazio ha barre algaraz ospatu eben, Pablo eta Jordik izan ezik, honeek korroaren erdian egozan, serio eta erne. Mutiko bi ho-



neek alkarrengandik hain hur jarri ziran beren gorputzak bata bestearen kontra ebezala, eta horrek indarra emoten eutsen besteei aurre egiteko.

Baina ezusteko kidetasun ha ez jakon batere gustatu osaba Kasimirori, horregaitik erabagi eban berehala deuseztea, adore gehiegi hartu baino le-

hen. Jordiri berba eginez, arrenkura itxurak eginez esan eutsan:

— Beragaz bazagoz, ez zagoz gugaz, beraz ezingo zara gugaz bidaian etorri. Sentitzen dot...! Edo beharbada hobeto pentsatu eta gure aldera itzuliko zara barrero.

Jordik burua jaitsi eban eta, une batez ezbaian egon ondoren, pauso batzuk emon eta osaba Kasimiroren ondoan jarri zan.

Pablok begiradea saihestu egin eban, negarrez hasteko zorian egoala disimulatzeko. Ez eban nahi ezergaitik begietan malkoak ebazala ikusi eien.

Osaba Kasimiro, beste kolpe bat emoteko prest, Jordiren sorbalden gainetik besoa pasatu ondoren, guztiak gonbidatu zituan sukaldera. Han bapateko merienda bat antolatu eban, harrapatzen eben guztia mahai gainean jarriz: patata frijituak, olibak, txorixoa, mojójoiak eskabetxean, urdaiazpiko zatitxoak...

Bazter batean zutunik, Pablok jaki gozo hareek zelan irunsten ebezan ikusten eban, eta ahoa ur egiten jakon. Hala ere, benetako heroiak lez jasan eban, eta ez eban platera hurreratu eioen erregurik egin.

Bere kemena pot egiteko zorian egoala konturatzan zanean, beste zerbaitean pentsatzen ahalegintzen zan. Dana dala, jakina, heltzen jakon usain gozoaz, ez zan bat ere erraza. Hala ere, ezpanak miazkatzeko baino ez eban zabaldu ahoa.

Guzti ha gitxi balitz lez, norbaiti hau proposa-

tzea bururatu jakon:

— Gura dozue izozkia?

— Jakina gura doguna, baina ez dago.

— Herriraino joan eta erosi daikedazt —esan eban mutikoak eta, beste barik, kanporantz joan zan... Gerotxoago, bizikletan abiatu zan.

Une batez, Pablo janariaz ahaztu zan. “Bizikleta bat eskuratuko baneu, orduan ez nindukie harrapatuko”, bere plana egin eban, eta bihotzak jauzi egin eutsan.

Baina, lortzeko, lehenengo lokarri hareetatik askatu beharra eukan. Beraz, besteak ia ez eutsiela erreparatzen aprobetxatuz, ahalegin guztiak egin zituan eskuak askatzeko.

Mutikoa izozkiagaz itzuli zanean, artean sokeagaz burrokan ebilen askatzeko afanean. Besteak oihu eta txalo artean hartu eben. Hain iskanbila handia sortu zanez, jai itzela emoten eban.

Eta horrela jarraitu eben, plateretan izozki arras-torik ere geratu ez zan arte.

Orduan, egin eban planari pausoz pauso jarraiturik, osaba Kasimirok proposatu eban:

— Zer deritxozue, eroango dogu Pablo paseoan? Adiskide ona izan ez dan arren, zer moduz Kleenbody planetan zeinen ondo egoten dan erakusten badeutsagu?

— Bai! —erantzun eben danak batera, hareek ere bidaia egin eikiela esan gura ebalako horrek.

— Zeren zain gagoz? —itandu eban osaba Kasimirok harro itxuraz—: Aurrera! —eta ganbarara

abiatu zan.

Besteak Pablo inguratu eta, ia aidean, eskailaretan gora eroan eben. Mutikoak indar guztiak egiten bazituan ere, ez eutsan ezertarako balio. Etenbaga oihuka baebilen ere, ez jakon entzuten, besteak ozenago oihukatzen ebelako.

X

Handik alde egiteko modurik ez egoala argi baukan ere, Pablok ez eban etsitzen. Aurre emoten eutsen eta hainbaten artean heldu behar eutsien geldi eutsi ahal izateko.

Ia mugitu ere ezin zenez egin, haserreturik, osaba Kasimiro iraintzen hasi zan bururatzen jakozan berba itsusi eta asmatzen zituan guztiak botaz.

Horrek bere onetik atera eban nagusia eta, gogaikarri ha errenditzeko asmoaz, aztoraturik agindu eban:

— Emoiozue pilula, azkar!

Laguntzaileak berehala hasi ziran agindua beteten. Abiada handian Pabloren aurrean jarri eta...

— Edegii ahoa! —agindu eutsan Bernardok apur bat doinu atseginean, pilula hurreratzen zion bitartean.

Pablok ezpanak estutu zituan.

Gizona ez zan oztopo txikien aurrean ikaratzen

diranetakoa eta keinu egin eutsen mutikoei. Batzuen artean, Pablok indar egin arren, sudurra itxi eta matraila hazurretik helduz, ahoa zabaltzera behartu eben.

Bernardok hortzen artean sartu eutsan piluletariko bat. Besteak baso bat hurbildu eutsan ezpanetara ura edan eian, horretan ari zirala bozina bat entzun zan. Jakina, kotxe bat gelditu zan etxe ondoan.

Isiltasuna, inork ere ez eban txintik atara.

Bozinea jo eben berriro, eta orduan kezkatu eta nahasturik begiratu eutsien alkarri, ez zalako normala handik inor pasatzea.

Osaba Kasimirok ere ez ekian zer egin, ez ekialako nor izan eitekean ordu txarreko bisitaria. Baina, ikusi ez eien leihora ez hurreratzen ahalegintzen zan. Etxean inor ez egoala pentsatzen bae-ben, beharbada alde egingo eben.

Egoen nahasmena aprobetxatuz, Pablok besteak ikusi barik pilula botateko modua egin eban. Eta sasoz egin eban, ba, segundo batzuk beranduago, esku batek ahoa itxi eutsan laguntza eske oihuka hasi ez eiten.

Barriro ere bozinea jo eben, eta orduan lehenengo zaunkak entzun ziran:

— Guau, guau, guau!

“Tento...?” pentsatu eban Pablok, nahikoa harriturik, baina ia ziur halaxe zala.

— Guau, guau! Guau, guau! —ekin eutsan txakurrak, ugazabei zerbait esan gura baleutse lez.

— Nora hoa Tento? Hator hona! Ez dok ikusten ez dagoala inor etxean? —andrazko ahotsa entzun zan, eta Pablok ezelako arazo barik ezagutu eban.

— Guau, guau, guau! —egin eban txakurrak, eta zaunkak gero eta hurrago entzuten ziran.

Osaba Kasimiro arineketan joan zan leihora. Kristalen ostean ia ezkutaturik, Rosaren siluetea ezagutu eban. Haren ondoan Jazinto egoan eta, honnei bidea erakutsiz, Tento aurretik.

Rosak, kriketea biratu eta atea zabaltzen zala ikusi eban. Senarrari begiratu eutsan zalantzaz beterik, baina Tento jantokirantz joanez, jarraitu egin eutsan pauso erabagiz.

Jazinto ere ez zan atzean geratu, beraz hirurak sartu ziran, euren etxea balebe lez.

Bapatean, Tento gelditu egin zan eta usain egin eban alde guztietan, eta azkenik eskaileratan gora joan zan buztana astinduz.


Rosa eta Jazinto bere atzetik joiazan eta, igo ahala, ozenki jotzen eban musika zaratatsua entzuten hasi ziran, han guztiak gorak balira lez.

— Zer da hau! —esan eban Rosak belarrietan eskuak ipinita, eta azkarrago ibiltzen hasi zan.

Gora heldu zanean, mihina ia kanpoan eban, baina, bat ere zalantzarik izan barik, berehala zabaldu eban atea. Aho zabalik geratu zan dantzan eta saltoka guztiz animaturik aurkitu zituanean.

— Ah, hau ezustea! —itxurak egin zituan osaba Kasimirok, agurtzera hurreratzen jaken bitartean.

Baina Tento aurrean jarri eta ez eutsan pasatzen



itzi mehatxuka hortzak erakutsiz. Gizona kolpean geratu zan eta, etorri barriekin adeitsua izaten aha-legenduz, bere burua zuritu gura izan eban:

— Ez zaituztegu entzun...

— Ez naz harritzen —erantzun eban Rosak, sorbalda gainetik begiratzuz eta, baimenik eskatu ere

egin barik, joan eta amatau egin eban irrati-kaxetea.

— Aaahhh...! —arnasea hartu eban nasai, baina, biratzean, ia orekea galdu eta ia muturrez aurrera jauzi zan.

Pablok, loturetatik aske, arineketan hasi eta samara salto egin eutsan. Bere indar guztiez besarkatuz, musuak eta musuak emoten eutsazan, kideak zer pentsatuko eben bost ardura eutsala.

— Nire txikitxo! Hau poza zu ikustea! —ospatzen eban Rosak, zorionsu eta irribarrez.

Bitartean Tentok osaba Kasimirori aurre egiten jarraitzen eban, pausurik emotea debekatuz. Eta gizonak, zer besterik egin eiketan ez ekiela, eskua pixka bat luzatuz, beldurrik askoz, esaten eutsan:

— Kaixo, txakurtxo..., txakurtxo polita, kaixo...

Baina Tentok, haginak erakusteari itzi barik, susmoz beterik jarraitzen eban:

— Grrr, grrr, grrr!

Txakurraren jarrera tematia eta kezkarria zanez, osaba Kasimirok ahalbait arinen aldendu gura eban. Horregaitik, Jazintori esan eutsan:

— Badirudi begitan hartu nauala.

— Zagoz nasai, ez dau ezer egiten —esan eutsan Jazintok nasaitasunez.

Entzun eutsanean, Tento ahoa gehiago zabalitzen ahalegendu zan, itxura bildurgarriagoa izateko. Osaba Kasimirok, betagin handi hareei begira, eta ikarea ezkutatu barik, Jazintori itandu eutsan:

— Ziur zagoz ez dauala ezer egiten?

— Bai, gizona!, itxura hori daukan arren, ez leu-ke eulirik ere hilgo. Ogi zatia baino otzanagoa da. Benetan! —ekin eutsan Jazintok, esaten ebana si-nesturik.

Eta bere berbakaz osaba Kasimiro nasaitzea lor-tu eban. Izan ere, txakurraren haserreari jaramonik egin barik, ibiltzen hasi zan esanez:

— Goazen egongelara, han erosoago egongo gara.

Erantzun ordez, Tentok praketatik heldu eta as-tindu eder bat emon eutsan, orroe haserreak egi-nez.

— Lagundu! Lagundu! —hasi zan oihuka gizo-na, munstro ha gainetik kentzeko zer egin ez ekia-la.

Jazintok ikuskizun guzti hari mihiari haginka eginez begiratzen eutsan barregurari eutsi ahal iza-teko. Konturatzean, osaba Kasimirok zanetan odo-la irakiten ebala nabaritu eban. Beno..., horixe bakarrik behar eban! Gainera bere lepotik barre egitea jauregiko bufoia balitz lez!

Dardarka, etenbarik ebilen Tentorekin burro-kan, Jazintori aurre egin eta esan eutsan serio-serio:

— Esango zeunskio bakean izteko?

— Berehala... —erantzun eban besteak, umore ona galdu barik eta, Tento gogorregi hartu barik, esan eutsan—: Nahikoa dok, hago geldi! Beti olge-tan ibili behar dok ala!

Tentok bere harrapakina aske itzi eban eta Jazintorengana hurreratu zan buztana astinduz eta

zaunkaz pozarren.

Osaba Kasimiro jantziak atontzen saiatu zan, baina alferrik. Prakak hain zimurturik eta lerdez be-teta zituanez, konponbide bakarra aldatzea eban.

Eta gustora egingo eban, halako itxuraz ikuste-ak deprimitu egiten eban eta. Baina jakinik anfitrioi onak ezin dituala bisitak itzi, gogoz kontra bazan ere, egongelara eroan zituan.

Eta, horretan ziharduala, disimuluz Bernardo-rengana hurreratu zan, esateko:

— Eroaizuz mutikoak kanpora, guztiak! —azpi-marratu eban—. Olgau daiela eta oihu egin daiela ugari, dibertitzen dirala sinestuazoteko honeei.

— Bai, nagusi —erantzun eban besteak, zintzo-tasunez, eta pauso pare batean Rosa eta Pabloren artean jarri zan.

Mutikoak, amaren ondotik ez aldentzeko ahale-ginak egiten zituan eta, haren ondotik alde egiteko arinago ibiltzen hasi zan. Baina gizonak, ihes egiten itzi barik, besotik heldu eta ahapeka, ezpanak ozta-ozta mugituz esan eutsan:

— Orain kanpora urtengo dogu, argi dago!

— Ni... ez... —libratzen saiatu zan Pablo.

— Guztiok! —mehatxatu eban laguntzaileak, eta eskuturra bihurtu eutsan izugarrizko mina emonez.

Pablok min keinua egin eban, baina ez eban oihurik egin egoerea gehiago ez aldrebesteko.

Gutziz ikaraturik egoan. Beldur itzalaa eban jen-de harek berari eta gurasoei egin eikieenagaitik.

Zirudienez, ez eukan esana egitea beste erremediorik mendekurik hartu ez eien.

Horrelan, beste mutikoez inguraturik, lorategirantz abiatu zan barriro protestarik egin barik.

Pilotan eta saltoka irribarretsu ebilen bitartean, agindu eutsien lez, ez zituen gurasoak bistatik galtzen leihoetatik begiratu. Hareek, egongelan jezarrita, osaba Kasimiro eta Bernardogaz berbetan ziharduen.

Azkenik, inguru-minguruka ibili ondoren, etxe-ko ugazaba zerk kezkatzen zituan benetan itauntzera ausartu zan:

— Eta..., zer dala eta etorri zarie hona?

Itaun honi Rosak, mihinean arantza barik, berehala erantzun eutsan:

— Ba, begira, ni ez nengoa oso ziur gure semea ondo pasatzen ebulanik.

— Zelako burutazioa! —moztu eban gizonak, zalantza hareek izateko ez egoala arrazoirik aditzera emonez.

— Eta oraindik ez dakit Pablo gustura dagoan —gehitu eban andreak.

— Egonaldiaz gozatzen dabilela ziurtatu daiketzut —baieztatu eban osaba Kasimirok, zalantzarik geratu ez eiten ahaleginak eginez.

Baina Rosak, zerbait buruan sartzen jakonean astoa atzeraka baino tematiagoa zanez, bereagaz jarraitzen eban.

— Ez pentsatu zure berbea zalantzan jartzen dodanik, baina... kontua da berak esatea gura do-

dala. Horrelan nasaiago geratuko naz —eta, konpromezuzko irribarrea eginez, gehitu eban—: Uler-tzen deustazu, ezta?

— Jakina! —erantzun eban gizonak eta, Bernardorengana zuzenduz, hau esatea beste erremediorik ez eban izan—: Joan eta ekarri eizu Pablo.

Laguntzaileak jarlekutik salto egin eban ipurdian sua baleuka lez eta ia arinetan aldendu zan.

— Hori ernetasuna! —esan eban Rosak maltzurkeriaz, osaba Kasimirok zeiharka begiratu.

Bestea laster itzuli zan egongelara, Pablo sorbal-datik helduta ekarrela, adiskide onak lez. Ikustean, Tonto jagi eta ugazabaren bila joan zan eskua miazkatzeko.

Pablo tente baino tenteago etorren. Eta, gehiegi hurreratzeko aukerarik emon barik, osaba Kasimirok onkote itxuraz itxuraz eutsan:

— Esaidazu, zer duzu nahiago, hemen geratua-la gurasoekaz joan orain?

Bernardok besoa estutu eutsan, agindu eutsien lez portatzen ez bazan gertatu ahal eikionaren gomutagarri lez.

— Nik... nik... —hasi zen totelka Pablo.

— Bai, txikitxo —animatu eban amak—, zer egin nahi dozu?

— Geratu... egin nahi dot... —esan behar izan eban.

XI

— **B**erbea emon egunero deituko deustazula telefonoz —eskatu eutsan Rosak kotxean sartu baino lehen.

— Bai, deituko dot —erantzun eban Pablok eta begiradea desbideratu eban.

Rosa Jazintoren ondoan jarri zan jezarlekuan eta, beti lez, Jazintok gomutatuazo eutsan:

— Lotu eizu gerrikoa.

— Horixe egiteko asmoa neukan, baina ez deustazu astirik emon. Zelako gizona! —Kexutu zan emaztea.

Tento atzeko jezarlekuan joianan, burua lehiatilatik atarata eta, Pabloren ondotik aldentzeko gogorik ez ebanez, kezkatu rik zaunkaka:

— Guau, guuuuuuu, guau!

Lurrezko bidearen erdian gelditurik, Pablo hareei begira egoan.

— Alaitu aurpegi hori —esan eutsan osaba Ka-

simirok, bistarik kendu barik.

Umea ahalegindu zan baina ezin izan eban. Une haretan, Jazintok motorea martxan jarri eban eta abiatu egin ziran.

— Agur! —esan eban Rosak, eskua astinduz.

Pablok ezin eban hatzamar bat ere mugitu. Gogorturik zegoan, gurasoak gero eta urrunago egozala ikustean sortu jakon ikareaz.

— Egiezu agur eskua jasota! —agindu eutsan osaba Kasimirok.

Metro batzuk baino ez ziren falta kotxeak bideko bihurtune bat hartu eta bistatik galtzeko.

— Astindu eskua, kokolo hori! —esan eutsan barriro gizonak.

Hori egin ordez, kotxea bistatik galtzen ebalatik ikustean, pentsatzeko ere asti barik, Pablo arineketan hasi zan, etsipen handiz oihukatzen ebalatik:

— Ama! Aita!

— Harrapatu eizue! —agindu eban osaba Kasimirok, eta mutiko batzuk haren atzetik abiatu ziran.

— Guau, guau! —abisatu eban Tentok, jarlekuaren alde batetik bestera mugituz.

— Isilik! —oihu egin eutsan Rosak eta belarriak estaldu zituan, gortu baino lehen.

Baina Tonto, zaunka eta zaunka, leihatilatik salto egin eta galgoaren ziztuaz Pablorigana abiatu zan.

Artean zer demontre gertatzen zan ez ekiala, Jazintok kotxea gelditu eban, eta hau bide erdian

itzita, txakurraren atzetik joan zan.

— Itxaron! —eskatu eutsan Rosak kotxetik urtenda, gona estuaren erruz ezin zalako arinago ibili.

Andreak etenbaga oihukatu arren, Jazinto ez zan gelditu. Mihina kanpoan ebalatik joan zen arineketan. Eta, landaretza handiko bihurtune pasatu ondoren, zur eta lur geratu zan sinestezinezko ikusizun haren aurrean.

Tentok, haserre baino haserreago, bizkarreko ile guztiak lazturik eta haginak erakutsiz, Pablorigana hurreratu gura eban mutiko talde bati aurre egiten eutsan bat ere bildur barik.

Bestalde, Pablok eskuetan harri bana hartuta, hurreratzen jakon lehenengoari botako eutsala mehatxatzen eban.

— Zer gertatzen da? —itandu eban Jazintok, iskanbila ha zergaitik sortu zan ulertu ezinik.


Mutikoak, azalpenik emoteko gai ez zirala, bira erdi emon isilik eta etxera itzuli ziran. Pablo aitaren besoetara joan zan eta, kontrolatu ezinik, negarrez hasi zan atsekabez beterik eskatzen eban bitartean:

— Etxera joan gura dot! Ez naizue hemen itzi! Etxera joan gura dot!

Arineketan egiteko ohiturarik ez ebanez, Rosa arnasestuka joian, ezin eban gehiago. Baina semea modu haretan ikustean, tximisteak lez urten eban oihuka:

— Zer gertatu jatzu? Zer egin deutsue?

— Etxera joan gura dot! —esan eban barriro ere Pablok, aurpegia aitaren bularraren kontra estutuz.



— Ba goazen eta kitto —nasaitu eban Jazintok eta, Rosari begiratzuz, keinua egin eutsan itaunka jarraitu ez eian.

Bere ohituren kontra, Rosak gizonari obeditu eta ez eban txintik atara. Orduan, astiro-astiro, Pablo kotxerantz eroan eban.

Bitartean, Jazinto etxe haretara itzuli zan semearen gauzak hartzera. Tentok lagundu eutsan, behar balitz, nagusia babesteko prest.

Osaba Kasimirok hurbiltzen ikusi zituan eta bila urten eutsen. Umearen portaerea zala eta harridura handia erakutsiz, itandu eban:

— Baina..., zer gertatu jako?

Eta Jazintok, bat ere leoa ez zanez, haserretu barik erantzun eban:

— Seguruena, zuk inork baino hobeto dakizu. Baina horretaz beste baten berba egingo dogu. Orain bere motxilea hartzea baino ez dot gura.

Norbait joan zen bila eta berehalaxe ekarri eutsien.

— Eskerrik asko —esan eban Jazintok motxilea hartuz, eta beste barik aldendu zan.

— Gabon deizuela —agurtu eban osaba Kasimirok iseka eginez lez, horrela bere kezka estaltzen ebalarik.

Eta Jazintok, burua biratu barik eta aurrera jarraituz, erantzun eban:

— Laster arte. Ikusiko dogu alkar.

— Guau, guau, guau! —egin eban Tentok, nagusiaren berbak baieztuz.

Osaba Kasimiro zutunik egon zan ate ondoan. Besteak inguratu jakozan apurka-apurka, alkarri etenbaga begiratzuz, susmoz beterik eta ikaratuta.

Inor ez zan txintik ateraten ausartzen, harik eta Bernardok, ahots dardaratsuz, itandu eutsan arte:

— Ez ete gaitu salatuko?

Osaba Kasimiro isilik egon zan segundo batzuetan, pentsakor, gero bat ere zalantza barik erantzuteko:

— Ez, Pablok ez dau berba egingo.

Eta horrelan zan, ez egoan ezer ateraterik ume-ari. Eta hori amak ahalegin guztiak egiten ebazala. Baina... ezinezkoa zan!

— Itziozu, kontatuko deusku —esan eban Jazintok, bista bidetik kendu barik.

— Beno... —esan eban Rosak apur bat nahiba-geurik. Berak ez eban senarrak besteko pazientziarik eta Pablok etxe haretan gertatutakoa behin-gez kontatu eian gura eban.

Baina begi bistan egoan ez ebala itxarotea beste erremediorik. Ondotxo zekian Pablo temati jar-ten bazen ez egoala eritziz aldatu eragiteko mo-duk.

“Jainkoáren, hauxe burugorra! Noren antza ete dau?”, itandu eutsan bere buruari, une batez bere birtuteak eta akatsak ahaztuz.

Jezarlekuan eroso jarri eta irratia iziotu eban, itzulerea hain astuna gertatu ez ekion. Bide luzea eukien etxera heltzeko.

Musikearen laguntzaz, Pablo apurka-apurka na-saituz joan zan. Azkenean Tentoren lepoaren kon-tra jarrita loak hartu eban.

Baina amesgaiztoak etorri jakozan eta, bildu-rraz, jarlekuan jauziak egiten zituan.

— Gizajoa —esan eban Rosak ahapeka, itzartu ez eiten eta, Jazintorengana hurreratuz, autortu eu-

tsan—: Hau ez jat batere gustatzen.

Jazintori ere ez jakon gustatzen.

Begi ertzetik begiratu eutsan emazteari eta be-kokia zimurturik ikusi eban, bere kautan arineke-tan eta nahasian berba egingo baleu lez. Animoak emon nahian, kokota laztandu eutsan.

Berehala, emaztea hurreratu jakon, musu zara-tatsu bat emon eutsan matrailean eta gero zizpuru egin eban pozez. Oso gustoko eban arreta eta mi-moak jasotea. Halakoxea zan.

Handik aurrerako bidea isilik egin eben, burua itzuliz, noizbehinka, semeari begirada bat egiteko.

Pablo, kotxea gelditzen zala nabaritzean, itzartu egin zan. Begiak erdi zabaldu zituan eta heldu zira-la konturatu zan. Orduan, estropozuka, etxean sar-tu zan. Eta, sukaldean gelditu ere egin barik, zuzenean joan zan bere logelara. Ahiturik, oinetakoak kendu eta ohe gainean etzuteko baino ez eban izan indarririk.

Gerotxoago, Rosa eta Jazintok zelan zegoan ikusteko kukuka egin ebenean, seko lo zegoan.

— Itz deiogun atsedean hartzen —xuxurlatu eban Jazintok, atzera eginez.

Rosak onartu eta gero esan eban:

— Bihar, seguruenik, zer gertatu jakon kontatu gura izango deusku.

Baina... baita zera ere! Biharamunean gosaltze-ra jaitsi zanean, zelako haserre aurpegia eukan ikustean, Rosa zehatz harrituta geratu zan.

“Demontrea..., zelako izaerea!”, pentsatu eban

amak, esnea, ezta eta zerealakaz prestatzen eutsan bitartean.

Pablok berbarik egin barik jan eban eta, amaitutakoan, mututurik, egongelara joan zan jezartera. Luzaroan egon zan geldi, begiradea hutsean galdu-ta, eta horretan telefonoak jo eban.

Zergaitik ez ekiala, baina erabat ikaraturik, burutik oinetaraino dardarka hasi zan. Eta gehiago amak eskatu eutsanean:

— Pablo, mesedez, jarri zaitetz telefonoan.

Telefonora hurreratu eta aurikularra hartzeko halakoxe bildurra eukanez, une batez pentsatu eban ez zala gai izango.

Azkenik, ia ahotsik baga, erantzun eban, ikaragarrizko bildurrez:

— Bai...

Isiltasuna.

— Bai... —esan eban barriro Pablok, ia arnasea hartzen ere izten ez eutsan korapiloa eztarrian e-bala.

Beste aldean barre algara gorrotogarri bat entzun zan eta, jarraian, osaba Kasimiroren ahotsa, infernuko leizezuloan balego lez durunda egiten ebana:

— Deabrukume hori, abandonatu egin gaituzu. Zergaitik egin dozu? Ez dozu zina gogoratzen ala? Ahaztu al jatzu gutariko bat zareala? Ezer txarrrik gertatuko balitxaku, zeuretzat ere bardina izango litzateke, ez ahaztu! Ahaleginak egin arren, ezelan ere ezingo zara gugandik urrundu, ulertu dozu?

— Bai..., bai... —lortu eban Pablok esatea.

— Esaidazu gauza bat —jarraitu eban gizonak, berba bakoitzean bere multzurkeria guztia nabaria-zoz—, gurasoei kontatu deutsezu ezer?

— Ez, ez!

— Sinesten deutsut, eta pozten nau horrek. Behar baino gehiago berba egiten badozu, mihina zatika aterako deutsut, benetan dinotsut!

Instintuz, Pablok ahoa itxi eban eta ezpanak eskuaz estaldu zituan, ikaraz itzelezko begiak edegiten ebazan bitartean. Pilak gaztatu jakozan irratia baino isilago egoanez, besteak ziurtatu beharra izan eban:

— Hor zagoz oraindino?

— Bai...

— Beno, arrazoitzen dozula ikusten dot —esan eban, eta gero berak egin eban isilaldi luzea. Pablork ha amaiezina egiten jakon. Azkenik, gizonak jarraitu eban—: Zer moduz asteazkenean bisitaxo bat egiten badeustazu? Etorriko zara?

— Bai... —berbea emon eban Pablok, ba ez ekian zer besterik egin eikean.

Agurtu baino lehen, osaba Kasimirok gogoratu eutsan:

— Izan zaitetz mutil ona eta ez eizu gure planeta Kleenbody maiteaz inogaz berba egin.

— Ez dot egingo... —errepikatu eban Pablok ia mekanikoki, ahalmen handiko azti baten kontrolpean balego lez—. Agur... —gehitu eta eskegi eban.

“Hau nahaspilea!”, pentsatu eban, orientazioa guztiz galdurik. Ez ekian zer egin, nora joan, ezta zer pentsatu ere. Setiaturik eta harrapatua ikusten eban bere burua, alde egiteko aukera barik.

Bapatean, honelako gauzak gertatzen diran lez, harridura handiz nabaritu eban gogora etorkozala aurreko baten telebistan ikusitako filme bateko irudiak. Zergaitik egiten eban ez ekiala, pasarte desbardinak eta argudioa gogoratzen jhasi zan.

Soldadu gaiztoengandik ihesi ebilen indio bati buruzkoa zan. Inguratzea lortu eben arte jarraitu eutsien.

— Entregatu zaitez, ez deusugu ezer txarrrik egingo! —baieztatu eutsien, baina guzur hutsa zan. Harrapatu egin gura eben bizia kentzeko.

Indioa, berba hareek sinestuz, ia amarruan jausi zan. Baina azken unean jaramonik ez egitea erabagi eban eta sastraka arteko bidezidor batetik aldegin eban.

Horrelaxe lortu eban bere burua salbatzea indio errebelde eta adoretu harek.

“Ederto egin eban!”, esan eban bere artean Pablok, artean indioagan pentsatuz. Eta, ideia ha hausnartuz, sukalderantz abiatu zan. Ate ondoan geratu eta amari begiratu eutsan.

Rosa oso lanpeturik egon okela errea prestatzen kipuleagaz, piperrekin eta patatakaz...

— Ama... —hasi zan Pablo esaten, ahapeka.

XII

Asteazkenean, eskolatik urtendakoan, etxetik pasatu zan Pablo sartu-urten bat egitera. Gero, bekokia zimurturik eta eskuak poltsikoetan zituala, Kalabria kaleko pisura abiatu zan.

Leihoen atzean jarrita, Rosa eta Tentok urrun-tzen ikusi eben. Eta hantxe geratu ziran bistatik galdu eben arte.

Une horretan, Tento tximistea lez joan zan bere hedearen bila, nahiz eta ordu hareetan kalera urte-tzeko ohiturarik ez baeban ere. Eta, Rosak leihoan jarraitzen ebanez, zaunkaka hasi zan, azkar ibilteko esan gura baleutso lez.

— Guau, guau, guau! —ekin eutsan txakurrak, batetik bestera urduri ibiliz, eta egoerea jasan ezinik.

— Banoa —esan eban Rosak, giltzak bilatzen zituan bitartean, urduritasunaz ez ebalako gogoratzen non sartu ebazan.

Azkenean aurkitu zituan eta, hedea hartuta, ka-

lera urten eban Tentoren atzetik. Txakurra lasterke-ta baten balebil lez joian, eta Rosak gorriak ikusten zituan hari jarraitu ahal izateko.

— Hain azkar ez! —eskatzen eutsan andreak itobeharrean, baina txakurrak ez eutsan jaramonik ere egiten.

Bien bitartean, Pablo Kalabria kaleko pisura heldu zan.

Atea jo baino lehen, alkandorea eta kazadorea atondu zituan, arratsalde haretan itxura ezin hobea euki gura ebalu zirudian.

Arropea kontu handiz aztertu ondoren, nasaitzen ahalegindu zan kezkatuegi egoala nabari ez eien, eta gero txirrina jo eban.

Ahaleginak egin arren, bihotzaren taupadak azkarregi ebilkozala nabaritu eban. Eta une batez bururatu jakon bira erdi emon eta arineketan alde egitea. Atzera ere begiratu eban...Baina kontua da ez zala ate aurretik mugitu.

Gerotxoago, osaba Kasimirok bila urten eiutsan eta, neurribagako begikotasunez, pasatuazo eban.

Argi baino argiago egoan gizonak ahalegin guztiak egiten zituala bere aldetik ez egoala ez hase-rerrik ez gorrotorik erakusteko. Igarotako une txarrak, hori baino ez ziran: iraganeko gauzak.

Bere aldetik, Pablok ere aditzera emoten eban bere portaeran damututa egoala eta bakea egiteko gogoa ebalu.

Umea jezarri baino lehen anfitrioiak esan eutsan:

— Jarri zaitez eroso. Kendu jakea.

— Ez —esan eban berehala Pablok, eta gorri-gorri egin zan.

Gizonak nabaritu egin eutsan eta, umea urdu-riegi egoala pentsatuz, ez eutsan barriri esan,ez molestatzarren.

Osaba Kasimirok, zituan asmoetarako Pablaren konfidantza berreskuratzea komeni jakon, eta edo-zertarako prest egoan hori lortzeko.

Egongelan jezarri ziran, aurrez aurre, baina ez ziran ausartzen batak besteari begietara begiratzen. Isilik egon ziran, berbetaldia hasteko berba ego-kiak aurkitu ezinik lez.

Azkenean, osaba Kasimirok, horrelako egoerei aurre egiten ohitua zegoanez, benetan damututa egoan itxurak eginez, esan eban:

— Parkamena eskatu behar ddeutsut. Uste dot ez nintzala lagun on baten moduan portatu. Urduri samar nengoan eta...

— Bai zera! —eten eutsan Pablok—, errua neu-rea izan zan. Neu naiz ume lelo eta txarto hezi ba-ten modura portatu zana.

— Zergaitik dinozu hori? —itandu eban beste-ak, harriturik.

— Eta itandu egiten deustazu!? Uf..., sortu ne-ban nahasteagaz! Eta dena umekeria batengaitik, ba kontua da lera bizian nengoala Kleenbody pla-netara bidaiatu egiteko.

Gizona bapatean oso deseroso sentitu zan. Ez jakon gustatzen gai hau horrelan, hain zabalik, tra-

tatzerik. Uste ebalako ez zala leku eta unerik egokiena. Eta amaitutzat emoteko egoanean, konturatu zan horrek Pablori disgustoa emon eta betirako urrundu eikeala bere ondotik.

Horregaitik, bere bildurrei gain hartuz, berbetan jarraitu eban adiskidetsu.

— Ba... —esan eban, berba bakoitza pentsatu eta doinu egokia emonez—: bidaia egitea erabakiten dozun egunean, primeran pasako dozu. Egia da!

— Bai, bai, sinesten dot! —baieztatu eban Pablok eta pozez gehitu eban—: Gainera, lehenbailehen egin gura dot.

Ha itxaro baino hobeto joian, eta osaba Kasimirok ez eban poza ezkutatu.

— Benetan? Ez dakizu zenbat pozten nazan! Eta..., noiz egin gura dozu zeure lehenengo bidaia?

— Oraintxe bertan! —adierazo eutsan umeak, pozarren.

Baina hainbesteko euforiak, eta hain bapateko aldaketeak, osaba Kasimirori mesfidantza sortu eutsien. Orduan, zigarroa iziotzen eban bitartean, aitzakia modura esan eban:

— Sentitzen dot, orain ez nago prestaturik eta...

Pablo atzerantz egin beharrean, gero eta animatuago zegoan. Begiak oso disdiratsu zituala, erantzun eutsan:

— Hori ez da arazoa, hementxe daukat bidaia egiten laguntzen daben pilula horretariko bat —eta berehala atara eban poltsikotik, erakusteko.

Osaba Kasimiro aztoraturik geratu zan. Ezin eban sinestu. Ezin sinestu eban horrelako hanka sartzerik egin ebanik. “Zelan izan naz hain inozoa!”, itauntzen eutsan bere buruari, Pabloren eskuan zegoan piluleari adi-adi begira.

Ziur egoan guzti ha segada bat zala. Betazalak itxi zituan unetxo batez. Erabagi beharra eukan zer egin, eta azkar; baina sentitzen eban amorruek eta urduritasunak ez eutsien ez eutsien lasaitasunez pentsatzen izten.

Eta, begiak edegi eta aurrez aurre bere zoritxararren erruduna topatzean, ideiak eta pentsamenak kontrolatzeko gai ez zala, oihuka ekin eutsan haserre:

— Ipotx madarikatua, akatuko haut! —eta Pabloren gainera oldartu zan!

Pablo, salto itzela egin eta arineketan hasi zan, ozenki oihukatzen ebal:

— Lagundu! Lagundu! Zeren zain zagoze! —oihukatu eban, atzetik joakon arerio bildurgarriari zeharkatu begiratu. Bildurrez uzkururik, arropa artean gordeta eroan mikrofonora hurreratu zituan ezpanak, eta kezkatu errepikatu eban—: Zeren zain zagoze?! Lagundu!

Une haretantxe, bere asaitasunerako, polizia sartu zan bapatean pisuan. Sarrerako atea bota eban, barruko patiora emoten eban, eta leiho pare bat ere bai, sartu ahal izateko.

Aitaren batean inguratu eban osaba Kasimiro eta, armak berarenganantz jarrita, gaizkileari agin-

du eutsien:

— Geldi! Ez emon pauso bat ere!

— Ez... ez... ez egin tiro... —erregutu eban gizonak eta, batzuei eta besteei ikaraz beteriko begiradea zuzenduz, eskatu eban—: Ez egin minik...!

— Zure ezpanetan, horrek txistea emoten dau, lotsagabea! —oihukatu eban Rosak haserre, besoak azta ipinita hurreratzen jakon bitartean.

Ikustean, Pablok arineketan ondora joan eta besoak zabalik samara salto egin eutsan. Eta besarkadan Jazintok ere parte hartu eban, hau, urduritasun eta pozagaitik negarrari eutsi ezinik egoan eta.

— Zorionez amaitu da dana —esan eban gizonak ahots dardaratiaz.

Pablo eta Rosak ere baietz egin eben, kontsola-tzeko ahal eben guztia egiten eben bitartean. Hainbeste musu, laztan eta besarkada emon eutsiezan..., eta eskena ha benetan hunkigarria izan zan.

Horretaz konturatzean, egunkarietako argazki-lariak inguratu egin zituen eta, flashak botatzen zituen bitartean, indar guztiez eskatzen eben:

— Andrea, jarri eizu esku bat bularrean eta bestea bekokian. Horrelan, jarrera dramatikoagoan.

— Mutiko, ez begiratu kamereari eta jarri tristura aurpegia.

— Eta zuk, ea negar egiten dozun behingoz —bota eutsien Jazintori.

Gizonak, dana lotsaturik, ez ekian zer erantzun ezta zelan jarri ere.

Guztiak bere ugazabei begira egozala ikusirik,

Tento aurreratu egin zan isil-isilik. Aspalditik egoan hauxe egiteko irrikaz eta azkenean heldu zan unea.

Inguru-minguruka osaba Kasimirori hurreratu jakon eta, zaunka eta marraka barik, abisatu ere egin baga, haginka egin eutsan ipurdian.

— Aaahhh! —oihukatu eban gizonak, baina inork ez eutsan jaramonik egin.

Eta Tento, nahi ebana egin ebalako pozik, buztana aztinduz joan zan, oso alai, Rosa, Pablo eta Jazintorengana. Berak ere argazkietan urten gura eban.

Biharamunean laurak egozan egunkari guztietako lehenengo orrialdeko argazkian. Baina txalo eta laudorio handienak Pablorezentzat ziran, eta guztiak tratatzen eben benetako heroi modura. Berari esker talde arriskutsu bat harrapatu eben, drogeaz trafikatu eta gaztetxo errubage eta zaurgarriak galbideratzen ziharduana. Gaiari garrantzia kenduz, Pablok adierazten eban:

— Nik egin neban gauza bakarra gurasoei kontatzea izan zan.

Barria ezagutzean, auzoan nahaspila itzela sortu zan, eta ehundaka auzotar joan jakozan etxera zorionak emotera. Hala ere, hori eskolan sortu zana-gaz konparatuz ez zan ezer izan.

Guraso eta Irakasleen Alkarteak, Ikasleen Batzordea ere bat etorrela, jai egitea eta eguna omenaldi eta ospakizunetan emotea erabagi eban. Eta goiz erdian, musikea entzuten hasi zan patioan eta alde guztietan egoan jai giro zaratatsua.



Girnardak eta puxikak zintzilikatu zituen eta bat bapateko oholtza bat eregi eben. Han gainean Pablo jezariazo eben eta baita aita eta ama ere, oso harro honeek.

Eta esan beharrik ez dago, begirada guztiak joiazan Pabloringara. Batzuk eta besteak hurrera-

tzen jakozan agurtzera, beragaz argazkia egitera edo bostekoa emotera, egundo ez ebelako euki horrelako heroirik eskumenean.

Bere lagun Bitor, Jaime eta Fernando ere hurre-ratu jakozan. Hauek, ostera, ez egozan besteak adinean pozik, alderantziz, guztiz lotsaturik egozan. Hainbestearino, ezen ez ziran burua jasoten ausartu ere egiten eta.

Eta, begiradea desbideratuz, hirurek esan eutsien:

— Hik barkatzea itxaro joagu. Ez deuagu barri-ro “balea zuria” esango. Berbea emoten deuagu!

Pablo une batean oso serio egon zan, eta gero barre algara kutsagarri itzela egin eban. Zorionez, orduantxe konturatu zan “balea zuria” esaten ba- eutsien ere ez eutsala tutik ardura.

Eta gehiago, sinpatikoa iruditu jakon. Eta za- lantza barik, inoiz ez zan barriro horrelako leloke- ria batengaitik haserretuko.

Orduan, tribuna haren gainean estatua bat balitz lez egoten nekaturik, bere lagunekaz alde egin eban. Eta, danak batera, lurrean jauzika ebilen pi- lota jostalari baten atzetik joan ziran arineketan.

Aurkibidea

I.	7
II.	13
III.	19
IV.	27
V.	37
VI.	47
VII.	55
VIII.	65
IX.	73
X.	83
XI.	93
XII.	103

GAZTARO BILDUMA

1. Drogarik EZI
2. Renatak pianoa joten dau,
ingelesa ikasten dau eta
etabar, etabar, etabar
3. Hilten bazara,
ikusiko dozu...
4. Karibeko ipuinak
5. Gorbeiatarrak
6. Astoa eta laurok
Euskal Herrian zehar

UMEENTZAKO
BIBLIOTEKA
INFANTIL
KULTUR ETXEA-BASAURI

Betiko umore ikutuagaz, egileak eta marrazkilariak nobela barri hau gehitzen deustie ohitura egokiei eta Ingurugiroagazko Hezkuntzari buruz egin dabezan beste istorioei. Lan hau drogen kontrako deia da. Bertako protagonistea Pablo da, mutil potolo atsegina, adiskideak eukiteko edozein gauza egiteko prest dagoana, baina gai dana, baita ere, drogen aurrean **ez** esateko.

Lan hau, drogomenpeketasunen arriskuen aurrean umeak eta gazteak mentalizatzeko kanpainaren barruan dago.

